

BETERRIKO ALDIZKARIA

AIURRI

1994ko abendua. 8. zenbakia. Doan banatzen da.

Z
O
R
R
O
N
A
K



BETERRIKO ALDIZKARIA

AIURRI 1995

URTARRILA

1
2 3 4 5 6 7 8
9 10 11 12 13 14 15
16 17 18 19 20 21 22
23 30 24 31 25 26 27 28 29

OTSAILA

1 2 3 4 5
6 7 8 9 10 11 12
13 14 15 16 17 18 19
20 21 22 23 24 25 26
27 28

MARTXOA

1 2 3 4 5
6 7 8 9 10 11 12
13 14 15 16 17 18 19
20 21 22 23 24 25 26
27 28 29 30 31

APIRILA

1 2

MAIATZA

1 2 3 4 5 6 7

EKAINA

1 2 3 4

2. INKESTA: Eta zuk, ikusten al duzu Goen Kale?
4. BERRIAK LABUR
7. ZIKULU SALTSA: Abenduak 1: HIESaren Kontrako Eguna.
10. HERRIZ HERRI
19. ERREPORTAIA: "Hator, hator, mutil etxera..."
22. ELKARRIZKETA: "Gerra zibila andoaindarren begietatik".
Xabier Lasarekin solasean.
24. BASERRIAN: Orain hogei urte bezainbeste artzain.
26. KULTURA: BAPEk bere hirugarren diskoa plazaratu du.
28. KIROLA: Billabonako Aizkardi mendi elkarte, hogei urte gailurretan.
30. ZAHARRAK BERRI: Andoain: Mendoza txurreria, 1958tik hutsik egin gabe.
31. ENPRESA: Billabonako TAUNI, txapa manipulatzeko makineria.
32. BEGI ARGIA: Jon Unanue López. "Durango".
33. HEMEROTEKA
34. HOTS, HOTS!! SUKALDE TXOKOAN
35. MERKATU TXIKIA
36. ZURE HIZPIDEA
37. AIURRITARRAK: Euskal Okela Labelari buruz
hainbat hausnarketa. EHNEko Jon Zuazabeitia.
39. AGENDA
40. PASADIZUAK



OHARRA: Bazkun argitaratzaileak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik.

Argitaratzailea: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. **Egoitza orokorra:** Dr. Huizi kalea 15, 1-esk. 20140 ANDOAIN (Gipuzkoa) ☎ 30 07 32 Fax: 30 07 31 **Babesleak:** Aduna, Andoain, Asteasu, Billabona, Larrail eta Zizurkilgo Udalak. **Zuzendaria:** Antxiñe Mendizabal. **Maketatzailea:** Iñaki Garmendia. **Erredakzio Batzordea:** Eloi Egibar, Jone Larrañaga, Mikel Maiz, Jon Unanue. **Erredakzioa:** Maider Barandiaran, Txomin Etxeberria, Agosti Garmendia, Ainhoa Oiartzabal, Agurtzane Ormaetxea, Idoia San Sebastian. **Laguntzaileak:** Joxe Eizmendi. **Argazkiak:** Manu Mujika. **Komikia:** Beñat Azurmendi. **Publizitate arduraduna:** Aitziber Iraola. **Banaketa arduraduna:** Iñosken Mujika. **Administratzaile-eragilea:** Kepa Sarasola. **Inprimategia:** SORTU s. coop. **Filmaketa:** VideoCys, Donostia. **Lege-gordailua:** SS-202/94 **ISSN:** 1134-0614 **Tirada:** 3.500 ale.

Eta zuk, ikusten al duzu

Aspaldiko partez Arraldeko kontuak guztion ahotan daude. Hasieran gutxi batzuek baino ez zituzten Goenkaleko istorioak komentatzen, baina poliki-poliki gehientsuenok "harrapatu gaituzte" eta gutxi dira inoiz saioari buruz hitzik entzun ez dutenak. Asko dira berriz, Lasatarrak diren eta ez direnen komeriak ikusten dituztenak, eta kostaldeko herriskaren berrien jarraipen zuzena egiten dutenak. Euskal telebistan ikus-entzule kopururik

handienetakoa duen saioa da, zalantzarik gabe. Arrakastaren arrazoen artean pertsonaiekiko identifikazio erraza, hizkera herrikoia eta beste batzuk aipatzen dira. Dena dela, ekaina bitartean behintzat, orain dauden mila pasadizuek ze amaiera izango duten jakin ahal izango dugu. Gure telebistako pantailetatik desagertzean, ez ahal dute utziko hutsune handiegi-rik ikus-entzule leialen artean!



Jaione Aginalde,
ikaslea.
Larraul.

Bai, ia egunero, bueno egunero, ikusten dut Goenkale, bazkalondoan ez, gauean. Asko gustatzen zait saioa. Gehien gustatzen zaidan pertsonaia "Txapas" tabernaria da. Oso ongi egiten duelako gustatzen zait. Gustatzen ez zaidan pertsonairik ez dago. Gertatzen diren nahaste-borraste guztietan Karlosen gaisotasuna da gehien kezkatzen nauena. Zer gertatuko ote zaion jakinminez nago. Nik uste dut..., sendatu egingo dela.



Martin Lasa,
baserritarra.
Aduna.

Gogoratzen naizenean telebistan zerbait ikusten dut. Baina beste saio horren arrastorik ez daukat. (Azaldu diogu zer den baina hala ere, ez da konturatzen guztiak iruditzen omen zaizkio berdintsuak). Hainbeste programa daude telebistan! Denbora baldin badaukat egokitzen zaidana ikusten dut, eta bestela, ezerrez. Nik denetatik ikusten dut: kirolak, notiziak, kontzertuak... Urrusolo horren programa ere ikusten dut, tarteka-tarteka, egokitzen zaidanean. Gauean ikusten dut normalean telebista.



Marta Lasa,
ikaslea.
Andoain.

Bai, egunero ikusten dut. Ongi dago baina, "kulebroi" antzeko bat da, ezta? Baina bueno, ongi dago. Joxe Mari edo, da gehien gustatzen zaidan pertsonaia; gutxien berriz, Ane. Oso xelebrea delako gustatzen zait Joxe Mari, eta batez ere jasan behar duenagatik. HIESa dela eta ez dela, hori da gehien interesatzen zaidan kontua. Zer gertatuko ote den jakinminez nago.



XIXORI

BELARDENDA

DIETETIKA ZENTRUA
KONSULTA NATURISTA

Ondarreta, 9 - TELF. 59 01 99 - 20140 ANDOAIN




ONDARRETA KALEA, 7 - TELF. 591759
20140 - ANDOAIN



Hilario Galarraga, elektrizista. Zizurkil.

Bai, noizean behin ikusten dut. Oso ongi dago. Egunero ez dut ikusten, baina..., ia egunero. Gehien gustatzen zaidana tabernaria da. Nola da? Joxe Mari, elegantea da gizona. Bere hizkera eta jarduteko era asko gustatzen zaizkit. Bueno, denak gustatzen zaizkit, guztiak daukate hurbilekoa zaigun ezaugarrien bat. Kaleko jendeari gertatzen zaizkigun gauzak gertatzen zaizkie, eta saioak hori dauka ona.



Noelia Pérez, ikaslea. Asteasu.

Bai, egunero ikusten dut. Normalean gauean, baina eguerdian aspertuta nagoenean ere ikusten dut. Askok gustatzen zait. Karlos eta Xabier gustatzen zaizkit gehien, ni bezala gazteak dirrelako; gutxien berriz, Ane, ez zait batere gustatzen. Bere jarra da gustatzen ez zaidana. Amaia eta Felixen artean zer gertatuko den jakin nahi dut, zertan gertatuko ote den euren harremana. Eta Karlos eta Mertzteren artekoa ere interesatzen zait.



Rafaela Bazterrargi, jubilatua. Billabona.

Egia esan, ez dakit zer den hori. Zein katetan?... Bai, bai, nik badakit, nik badakit.. (aldameneko guztiak badakite zeri buruz ari garen. Saiatzen dira azaltzen, baina Rafaela ez da konturatzen. Koadrilak azaltzen dio berriro kristoren problema mordotan sartzen diren horiei buruz ari garela). Egunero ikusten dugu. Dauden problemak dira gehien gustatzen zaiguna. Pertsonaietan onenak Xabier eta "Txapas" dira, oso graziosoak dira, eta gazteak. Hortentsi berriz, a ze matraka! Eta Margarita. Agindu besterik ez dute egiten. Karloren arazoarekin gaude kezkatuta.



**Dietetika
eta Belardenda**

ZAINBERRI

Naturopataren kontsulta	Akupuntura
Iridologia	Ile tratamenduak
Masajea	Pisu terapiak
Estetika	

Pablo Gorosabel, 6 - ☎ 65 21 86
Kale Nagusia, 7 - ☎ 59 13 99

**TOLOSA
ANDOAIN**



MAPFRE

ASEGURUAK

ERANTZUN ORAIN
ZURE ETORKIZUNARI

Xabin Mujika Tolaretxipi

Kale Berria, 11 - ☎ 30 06 99
Dr. Huizi kalea, 4 - ☎ 59 23 07
Faxa 30-00-85
ANDOAIN

Andoain

Euskal Herrian Euskaraz talde sortu berria

Abenduaren bian egin zuen bere aurkezpena Andoaingo talde euskaltzale zahar-berri honek. Izan ere, orain sei urte desagertutako taldea, kide berriak bilduta, jarri da berriro ere lanean. Andoainen euskararekiko dagoen kontzientzia ezak eragin omen ditu taldea sortzera. Kontzientzia ezak eta euskarak kalean daukan presentzia eskasa.

Prentsurrean euren izaera aldarrikatzailea eta borrokatzailea aipatu zuten, alegia andoaindarrak sensibilizatzearaz eta herriko taldeak "zirikatzeaz" gain, euskarari arlo ezberdinetan egiten zaizkion erasoak salatu nahi dituzte, administrazioan, komunikabideetan, alderdi politikoetan... Hamabost urte bete berri dituen erakunde honen azken helburua Euskal Herri euskalduna, alegia euskara hizkuntza ofizial bakarra izango duen Euskal Herria lortzea da.

Herrian alderdi politikoeekin nahiz bestelako taldeekin harremanak izateko asmoa adierazi digute, beren egiteko garrantzitsuena "behingoz esatetik egitera" igarotzea delarik, "euskarak presa dauka eta bizitzeko gogoia" esan digu Aitor Uranga taldekideak. "jendea ez da konturatzen gaztelania eta frantsesa inposatu

dizkiguten hizkuntzak direla eta une honetan erdarak euskarari gain hartu diola". "hizkuntz politikaren al-daketa behar-beharrezkoa da" gaineratu du. Hurrengo hilabetectan zer ekintza egingo dituzten erabakita ez baldin badaukate ere, aurki andoaindarrak euren presentzia herrian izango dutela aurreratu digute: "Ekintza praktikoak burutzea da gure asmoa".




Euskal Herrian euskaraz

Asteasu

Gas propanoa ari dira instalatzen

Duela gutxi -bizilagun batzuek nahi baino luzeago itxaron ondoren hala ere- ekin dio "EGAÑA Instalaciones" deituriko etxeak Asteasun gas propanoa instalatzeari. Lanak hurrengo urteko udaberrirako amaituko dituztela aurreratu digute. Egundaino 85 bizilagunek egin dute instalakuntza etxetara eramateko kontratua.



Instalakuntzak lau atal dauzka: lehenik, herriaren sarreran egingo diren bi gas biltegiak egin; bigarren, 1.200 metroko hodi sarea herrigunean zabaldu; hirugarren, etxetara hodiak igo; eta laugarren, etxe barruko lanak hodiak kalentadoreetara, berogailuetara edota sukaldera lotzeko.

Orain etxetako lanak egiten ari dira. Dena den, etxean instalakuntza une honetan egingo ez duenak, aurrerantzean ere izango du gasa etxeraino eramateko aukera. Momentuz Elizmendi izango gas propanorik gabe geratuko den gune bakarra, baina aurrerago bertaraino eramateko asmoa ere badagoela aipatu digute.

"Egaña instalaciones"eko arduradunek adierazi digutenez gas naturalarekin alderatuz propanoak daukan abantaila prezioan dago, instalazioa, kontsumoa nahiz mantenimendua merkeagoa baita. Halaber, gogoratu Udaletxeko arkupeetan izango duela enpresa honek bulegoa. Gas propanoari edota instalakuntzari buruz Informazio gehiago nahi izanez gero, bertara jotzeko adierazi digute bulegoan.

Andoain

Zaborra poltsak ibaira

Eskola kaleko bizilagunak kexu dira ibaira ematen duten etxeetatik bizilagun batzuek zaborra poltsak botatzen dituztelako. Egunerokoa omen da, gainera, ohitura; behin ilunduz gero, batez ere, baina baita egun argiz ere. Zerrikeria eta lotsagebekeria galanta iruditzen zaio bizilagun askori portaera hori, horregatik hain zuzen ere eskatu digute artikulu hau idaztea, "ea bizilagunen bat aipatua izan dela nabaritu eta, lotsatuta, zaborrak botatzeari uzten dion".

Arazoa ez da atzokoa, hala ere, bizilagunek ez diote inoiz Udalari salaketarik egin. Inoiz Ertzaintza bera ere ibili omen da inguruak ikertzen, baina "jakina, bizilagunak ez dira ertzainak bertan daudela zaborrak botatzeko bezain ergelak" esan digu bizilagunetako batek. Atariko bileretan ere behin baino gehiagotan aipatu izan da gaia, baina denek ukatu egiten dute beraiek izan direnik. Aspaldi geunden horrelako bizitarik ibaian ikusi gabe; ibaia garbitu behar ez badugu, egin dezagun zerbaitek gutxienez, ahateek bizirik iraun dezaten".

"Eta gainera, punteria txarra daukate" gaineratu du, "izan ere, batzuetan uretara botatzen dituzte poltsak eta ur handia dagoenean ibaian behera joaten dira zaborrak, baina normalean etxe azpian dagoen horman gelditzen dira, eta bistarako batere atsegina ez izateaz gain, horrelako zikinkeriak osasun arazo larriak ekar ditzake".



Baten batek zabor poltsak botatzen ditu ibaira

Andoain

Inttui abesbatzaren aurkezpena

Joan den azaroaren 26ean egin zuen Andoaingo Inttui abesbatzak bere aurkezpen kontzertua herrian, Santa Krutz elizan hain zuzen ere. Aurretik Orendainen eta Astigarragan egin dituzte bi saio. Hogeita bi lagunek osatzen dute abesbatza eta Luisa San Sebastian koralistak egiten ditu zuzendaritza lanak. Gehienak andoaindarrak dira, hala ere, astigarragarrik, billabonarrak eta tolosarrak ere badaude tartean.

Orain arte Alberto Agirre abesbatzan kantatzen zuten gazte hauek, baina arrazoi ezberdinak direla medio, gazteak helduengandik bereiztu eta abesbatza propioa eratzeari erabaki zuten. Gaur egun taldea irekita dago, eta ahots ona edukitzea baino, abesteko gogoia izatea eskatzen zaio taldera bildu nahi duenari, izan ere bertako partaide batek esan digunez "abesten ikasi egiten da".

Olagain kultur etxean egiten dituzte entsaioak, astegunetan neskek alde batetik eta mutilek bestetik, igandeetan berriz, denek batera. Folklore eta polifonia kantatzen dute, eta bi hilabetez behin herrian edo kanpoan saioen bat eskaintzea da aurrera begirako asmoetako bat.



Inttui abesbatza

Dohainik
400 pzt

fotocolor

ERREBELATUA ORDU ERREBELATUA ORDU ERREBELATUA ORDU ERREBELATUA ORDU ERREBELATUA

Txartel hau erabiliz 400 pezeta gutxiago ordainduko duzu (24 x 30) argazkia handitzea

preziosa - 735 pzt
txartela - 400 pzt
ORAIN - 335 PZT

Jose Ignacio Unanue
 Juan Bta. Erro 1 - ☎ 59 43 32
 20.140 ANDOAIN

MANUEL LARRAMENDI KULTUR BAZKUNAREN II BILTZARRA

Abenduaren 17rako iragarrita zegoen Bazkunaren II Biltzarra urtarrilaren 21era atzeratu dela jakinarazi nehi die Bazkunak bere bazkide guztiei. Zizurkilgo Iriarte Kultur Etxean izango da batzar nagusia goizeko hamar t'erdietan. 1993-1994 urteetako balantzeak aztertuko dira, hala nola, 1995eko aurrekontua eta programa.

Ondoren Iriarte Etxean bertan bazkaria izango da eta Xabier Lasa Bergara andoaindarrak "Gerrate zibila andoaindarraren begietatik" idatziriko eta Bazkunaren ekimenez argitartutako liburuaren aurkezpena egingo du.



CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA

AIURRI
BETERRIKO ALDIZKARIA

**MUSUTRUKO
DEBALDE**

**Ez zaizula AIURRI etxera iristen?
Tabernara edo dendara joan eta AIURRI bukatu egin dela?**

Bidal iguzu izen-emateko txartela edo dei ezazu **30 07 32** zenbakira

AIURRI ALDIZKARIA ETXEAN JASO NAHI DUT HILERO DOHAINIK

Izen-deiturak -----

Helbidea -----

Herria -----



Abenduak 1: HIESaren Kontrako Eguna

“Prebentzio neurriak hartu ezean, edonor dago kutsatzeko arriskuan”

Abenduaren lehenean ospatu zen HIESaren Kontrako Nazioarteko Eguna. AIURRIk, komunikabide gehientsuenek bezalaxe, egun hori aitzakitza hartuz plazaratu nahi izan du gaia, nahiz eta askok pentsatzen duten egun beteko “informazio bonbardaketa” onerako baino txarrerako izan ohi dela, eta halako kanpaina erraldoiek jendearen morboa eta beldur irrazionala areagotzeko baino ez dutela balio. Esanak esan, AIURRIk Donostiako Easo kaleko 53.ean dagoen Gipuzkoako HIESaren Kontrako Batzorde Hiritarraren egoitzara jo du honez gero hamaika aldiz errepikatuak izan diren prebentzio neurriak zeintzuk diren jaso, gaisotasunak gizartean “normaltze bidea” har dezan topikoak eta uste txarrak alde batera utzi eta egun horretako protagonistekin, aлегia HIESarekin harremanetan urtean 365 egun bizi direnekin, kafetxea hartu bitartean, hitz egin asmoz. Izan ere, egoitzak beti dauzka atea irekita informatu nahi duenarentzat, kontsul-taren bat egin nahi duenarentzat, kontsolatuko duen lagun bat aurkitu nahi duenarentzat, edota gelditzen zaizkion azken egunak lagun artean igaro nahi dituenarentzat. Hiritarrez osatutako erakunde honek egunez egun aurre egin behar dizkion beste hamaika funtzio ere betetzen ditu. Agurtzen ari ginela espetxetik irten berriak ziren HIESez kutsatutako gazte batzuek etxerik gabe zeudela, eta auzoko parrokiako apaizei laguntza eske utzi ditugu egoitzako lagunak eta ezagunberriak.



Paki Lucha izan da egun osoa prentsaurretan, mahainguruetan eta mobilizazioetan eman ondoren egoitzan harre-ra egin diguna. Egunaren balorazioa egiteko eskatu diogunean, balorazio pertsonala baino ezin duela egin baina, hala ere eguna gehiegi gustatzen ez zaiola aitortu digu: “Nahiko egun hipokrita iruditzen zait: egun horretan jende guztiak darama lazotxo gorria eta sentsibilizatu-ta dagoela ematen du, baina hitzaldiak edota ekintzak daudenean beti betikoak agertzen gara”. Dena den, itxaropentsu ere agertu da horrelako kanpainen ondoren beti egon ohi delako bat edo beste gaiarekiko interesa hartu eta lanean hasten dena. “Neretzat HIESaz kutsatuta hil diren eta egunero gaisotasunarekin bizi behar dugunontzat jai eguna eta omenaldia da” dio. Egun horretan komunikabideek ematen duten informazioa ere gehiegizkoa iruditzen zaio Pakiri: “Interesatuena ere nekatzen dute, eta ez dakit zenbateraino den egokia edota ez ote duen larritasun sentzazioa areagotzen. Frantzia egiten dutena, adibidez, egoikiago iruditzen zait, astean behin HIE-Sari buruzko bi orduko saioa egoten da telebistan eta kitto”.

“Egun hori hipokrita samarra ere bada”

Informazio iraunkorra

Orain arte zabaldu den informazioa nahikoa izango zelakoan geunden gu, eta Pakik berak ere oraindik ez du oso ongi ulertzen batzuk zein nahastuta dauden. “Oraindik ere preserbatiboak eta pilula antisorgailuak efektu berebera egiten ote duten galdetzen digute gattetxoek eskoletan, edota kalean entzuten diogu jende askori heroinomakoak edota homosexualak ez direnez arriskurik ez daukatela”, dio Pakik, “beraz, horrelako gauzak entzuten jarraitu bitartean argi dago informazioa zabaltzen jarraitu beharra dagoela”. Bi omen dira jendeari helarazi behar zaizkion mezuak: harreman sexualetan, homosexualak izan ala ez, eta beti ere laguna ezezaguna izanez gero, preserbatiboa erabiliz eta odola eragin dezaketen tresna zorrotzak ez konpartituz ekiditen dela kutsadura.

Zikulu saltsa

Aurtengo kanpainako mezuak bi izan dira batez ere, bata "arriku taldeak" deiturikoez gain, prebentzio neurriak hartu ezcan, edozein kutsa daitekeela. Eta zentzu horretan harreman sexualen bitartez bikote heterosexualetan igo da nabarmen kutsatuen kopurua. Eta bestetik, espetxeetan birusak kutsatutakoak eta gaisoak bizitzen ari diren egoera tamalgarrria salatu nahi izan dute "HIES + espetxea= heriotz zigorra" bezain lema esanguratsua erabiliz.

Hemendik urte batzuetara harreman sexualen bidez transmitituko da soil-soilik

"Jendeak mentalizatzen hasi behar du HIESa urte batzuk barru harreman sexualen bitartez soilik transmitituko dela" dio Pakik, "izan ere heroinomanoen artean xiringak gero eta gutxiago konpartitzen dira, batez ere, botika batzuetan xiringak doan lortu daitezkeelako, eta beraiek ere kontzientziatuta daudelako". "Jende arruntak" omen dauka kontzientzia gutxien: "Harremanak izaterakoan gehienak oraindik lagunaren itxura onari erreparatzen diote, baina hori ahaztu beharra dago". Argi dago jendeak bere ohiturak aldatu be-

harko dituela. Aldaketa horrek giza harremanetan nola eragingo ote duen galdetu diogu Pakiri: "Jendeak preserbatiboa poltsikoan eramaten eta erabiltzen hasi beharra dauka". Horrelakoak entzunda asko dira gazteak harreman sexualak lehenago eta gehiago izatera bultzatzen dela esaten dutenak. "Beste batzuek, gazteek HIESaren beldurrez harreman sexualak beranduago dauzkatela esaten hasiak dira, dena den, nik dakidanez aurtengo haurdunaldi ez desiratuaren kopurua beste urte batzuetan bezain handia izan da, eta horrelako harremanetan HIESaren arriskua oso handia da", gaineratu digu.

"Estatistikaren eguna"

"Estatistikaren eguna" ere deitu dio batek baino gehiago HIESaren Kontrako Egunari, zenbaki eta portzentaiak ugari izan ohi direlako. Hona ondoan ezertan egoera argi dezakeen taula. Dena den, Pakiren ustez beste datu hauek dira azpimarragarriak: hamar urte igaro direla lurralde autonomoan lehenengo HIES kasuak ezagutu zireneti, gaur egun, medikamendu berriei esker, gaisoen bizitza asko luzatzen ari dela; xiringa bidez kutsatutakoen kopurua finkatu egin dela; eta asko igo dela harreman heterosexualetan kutsatuen kopurua, horien artean emakumeek osatzen dutelarik gero eta portzentaia handiagoa.

Birusari aurre egin diezaiokeen antidoto edota txertoari buruz galdetzean, gaisotasunen batean hain epe motzean

aurrerapenik izan bada HIESaren ikerketan eman dela erantzun digu Pakik: "Ni ziur nago txertoa lehenago edo beranduago izango dela".


"Jende guztiak birusa balu bezala bizi beharko luke"

Inoiz entzun izan da jende guztiak egin beharko lukeela HIESaz kutsatuta dagoen ala ez jakiteko froga. Zalanztan eta sufrizten ari direnek froga egin beharko luketela uste du Pakik "hala ere, froga egin aurretik susmoren bat dauka-




Paki Lucha Elkarteko kidea

Milioi bat biztanleko HIES kasuak E.A.E



HIES kasuak sexuaren arabera



● Transmisioa

- Droga xiringa bidez hartuta %78,3
- Sexu harreman heterosexualetan %8,8
- Sexu harreman homo/bisexualetan %5,1

nak. emaitza positiboa jasotzeko prest egon behar du. Prestatuta ez bazaude ondorioak are latzagoak izan daitezke". Bien bitartean jendeak birusa edukiko balu bezala bizitzearen aldekoa da Paki. alegia prebentzio neurriak hartuz.

Batzorde Hiritarra

Batzorde Hiritarra 1988. urtean sortu zen eta bi dira bere helbururik nagusiak: informatzea eta prebentzioa kanpainak egitea batetik, eta gaisotasunak dauzkan beste arlo batzuetan laguntzea bestetik, hala nola, gizarte mailan, gaisoekin, familiekin, lagunekin eta abar, "HIESa gaisotasunen artean beste bat izatea da gure helburua".


Bukatzeko, Pakik eta Batzorde osoak ohar bat ere igorri nahi izan diete interesatu guztiei, inork gai honi buruz informazio zuzena eta zehatza nahiko balu, edota bestelako laguntza Elkartera zuzentzeko esanez. Hona hemen telefono zenbakia eta helbidea: 47 20 36. Easo kalea 53. Donostia.

KITak

KIT deituriko zorrotxoak lau urtez geroztik daude salgai botiketan. 60 pezeta balio dute eta xiringa bat, ur distilatu ontzitxo bat, alkohol eskuoihaltxo bat, preserbatibo bat, eta xiringa lixibaz garbitzeko eta azala alkoholaz desinfektatzeko ohar bat aurki daitezke bertan. "Beti sexo segurua" dio plastikoaren azalean.

Botikarien ustetan, KIT erosten duen gehiengoa, guztiak ez esatearren, heroinomanoak dira, gaur egun anbulategietan ematen baitzaizkie xiringak diabetikoei eta xiringaren beharrean dauden beste gaisoei. Gaur egun badira bi edo hiru botika Errenderian eta Donostian, non erabilitako xiringa bat eramanez gero, doan beste bat ematen zaion erabiltzaileari.

Gure herrietako botiketan galdetu ondoren, Billabonakoa da, beste herrietako botikekin alde handiz. KIT gehien saltzen dituenen. Hilabete arrunt batean 300 inguru saltzen dituzte, hala ere salmenta erdira jaitsi omen dela argitu digute.



Kaleko iritziak

- 1- HIESaz kutsa zaitezkeenik uste al duzu?
A- Prebentzio neurriak hartzen al dituzu?
B- HIESa existitzen dela dakizunetik zure ohiturak aldatu al dituzu?
- 2- Beldurra ematen al dizu HIESa kallean dagoela jakiteak?
- 3- Gaisoren bat edo birusa daukan inor ezagutzen al duzu?

ANDOAIN

- 1- Ezetzik ezin da inoiz esan. Konturatu gabe har dezakezu birusa.
A- Bai, hartzen ditut. Jende guztiak hartu beharko lituzke.
B- Ez, ez ditut nere ohiturak aldatu.
 - 2- Bai, orain gauza batzuk egin baino lehen bi aldiz pentsatzen dut.
 - 3- Bai, heroinomano batzuk.
- ...
- 1- Bai, Iruditzen zaigu ezetz, baina gero eta gehiago ikusten ari gara posible dela.
A- Ez bikote finkoa daukat. Ni kutsatzeko forma bakarra odol transfusio baten bitartez edo izan daiteke.
B- Ez, ez dut ezertan aldatu.
 - 2- Bai, kutsagarria delako naiz beldur.
 - 3- Ez, ez dut inor ezagutzen.

BILLABONA

- 1- Bai, baina neurriak hartuko nituzke. Une honetan bikote finkoa daukat.
A- Bai, hartzen ditut.
B- Ez, ez ditut aldatu, hala ere gai honetan beti izan naiz oso zuhurra.
 - 2- Bai, beldur handia.
 - 3- Bai.
- ...
- 1- Jakina. Edozein kutsa daiteke
A- Bai. Ni ez naute preserbatiborik gabe harrapatuko. Baina mutilak ez daude oraindik oso kontzientziatuta eta gogor jarri beharra dago askotan jarritarazteko.
B- Gaztetan ez genekien HIESa existitu egiten zenik ere, baina ezagutzen dudanetik kontzientzia handia daukat, eta oso zuhurra naiz.
 - 2- Ez daukat beldurrik. Jendearen esku dago kutsatzea ala ez.
 - 3- Bai, jende asko.

LARRAUL

- 1- Ez dago jakiterik. Baina esaten dutenez, beharbada...
A- Ahal dela bai.
B- Ez, oraindik ez naiz beldur.
- 2- Bai. Aurren ahizpak xiringa sartu zuen oinean hondartzan eta...
- 3- Ez.

ZIZURKIL

- 1- Ez, nahikoa informazio dago.
A- Bai, baina gainera bikote finkoa daukat.
B- Lehen ere erabiltzen nuen preserbatiboa.
- 2- Bai.
- 3- Bai. Eta aitortu behar dut aldamenean edukita ez naizela gainera oso ondo sentitzen

ADUNA

- 1- Ezinezkoa, nik daramadan bizimoduarekin...
A- Bastante.
B- Beldurra ez, kezka. Egia esan... putetxeetara joateak ikara ematen du, ez da lehen bezala.
- 2- Putetxeetan beldurra ematen dit.
- 3- Hemen inguruan ez. Aduna garbi daukagu oraindik.

ASTEASU

- 1- Ezetz inoiz ezin daiteke esan. Baina iruditzen zait neurriak hartuz gero ez dagoela arriskurik.
A- Bai.
B- Ezkondata nago, gizon finkoa daukat, beraz...
- 2- Ez, ez dut nerretzat arriskurik ikusten
- 3- Ez.



Txistua eta danbolina

Aurten inoiz baino harrera hobegoa egin zaio ikastaroari

Larunbat goizero egiten dituzte entsaioak berderatzi ikasleek eskolako geletan, hiru taldetan bereiztuta: gazteenak, hasberriak, eta esperientzia gehixeago daukatenak. "Agur jaunaren" doinuak, "Uso xuria" eta "Dinbilibala" dira ikasten dituzten lehenengo kantuak, solfearekin tartekatuz. Izan ere, eta Silbiaren ustetan, txistua jotzeko solfeo asko jakin behar ez bada ere, derrigorrezkoa da musika irakurtzen jakitea.

Danbolina jotzen ikastea berriz derrigorrezkoa omen da: "Danbolinak txistuari indarra ematen dio, eta danbolinak txisturik gabe, ez dauka inongo funtziorik" dio Silbiak.

Doinu ezberdinak

Txistuak ohizko arin-arin eta fandangoaz gain beste aukera asko dauzkala argitu digu Silbiak, pianoa edo soinuaz lagunduta joz oso doinu ederrak egin omen daitezke. Adunako ikasleek, hasteko, kalean jotzeko adina ikasiko dute, solfeo eta danbolin eta guzti. Aurreragoko ikasketak, nahi izanez gero, kontser-

Aurreko urteko ohiturari jarraituz Udalak aurten ere zenbait ikastaroen eskaintza egin zuen irailean, herriko bizilagunek, eta batez ere gazteenek, parte har zezaten. Besteak beste, txistu ikastaroa antolatu zuen. Aurten inoiz baino jende gehiagok eman du izena txistua jotzen ikasteko. Silbia Sarasola irakasle tolosarrak eman digu horren guztiaren berri.

bategian egin beharko dituzte. Hala ere, aritzen diren ikasle hauentzat abuztuko Ama Birjiñaren eguna izan ohi da egun inportante eta handia. Goizeko zazpietan hasi ohi dira "diana jotzen" baserriz baserriz adunarrak esnatzen eta emandako dirua eta opariak jasotzen. Meza nagusiaren ondoren berriz, herriko enparantza alaitu ohi dute.

Silbiak dionez ikasle gaztetxoenei batez ere, ez dago ikasgai bera bi aldiz errepikatu beharrik, behin doinua



Ikasleak azkar ikasten dute

entzun orduko, berehala ikasten dute. Orain dela urte batzuk txistua pixka bat baztertzen hasi bazen ere, gaur egun berriro hasi omen dira gazteak interesatzen, eta gero eta jende gehiago animatzen omen da txistua jotzen ikasten.



ADUNAKO UDALA
(GIPUZKOA)

IRAGARKIA

**ADUNAKO 1. 3 EKINTZA URBANISTIKORAKO
UNITATEAN FUNTSEN ESKUALDAKETARAKO
ENKANTE DEIALDIA**

GAIA: Jendaurreko enkantea, Adunako Udalak Aduna herriko 1 Areako 1. 3 U.A. Un dagoen 833,64 m²-ko lur zatia saltzeko. Lur zatiak bi bizitzako etxea eraikitzeko eskubidea du.

LEHIA SARIA: Gutxieneko lehia saria ZORTZI MILIOI (8.000.000) pezetakoa izango da. Lehiaketa gorakadaz egingo da eta ez da onartuko aipatutako oinarritzko saria gainditzen ez duen jarrerarik.

PROPOSAMEN AURKEZPENA: Udaleko errejistro orokorrean aurkeztuko dira, Baldintza Zerrendan sartutako ereduaren arauera, enkantea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik hasi eta 20 egun habiletako epean.

INFORMAZIOA ETA BALDINTZA PLEGUA: Adunako Udaleko bulegoetan.

Adunan, 1.994ko abenduaren 12an.
Alkatea.

AURRERA TABERNA

Girorik ederrena gazteriarentzat!!

ZIZURKIL



HERCULES

Aseguruak ARGENTARIA

Amaia Kortajarena

Bulandegi bidea, 6 - Telf. eta Faxe 69 37 34

ZIZURKIL



“Tren Txikiko 31 Euskal Herrira” taldea

31 lokomotorea Azpeitiko Tren Museora ekarri nahi dute

Gaur egun Leoneko Cubillos herrian ezertarako erabiltzen ez dela dago Plazaolako trenaren 31 lokomotorea edota “Txokolatera”. Leongo gobernuari Euskal Herrira ekartzeko eskaria eta behar den presioa egitea da talde sortu berriaren helburua. Duela urte batzuk Eusko Jaurlaritzak nahiz Nafarroako Gobernuak egin zioten eskari bera Leongo gobernuari, baina ezezkoa jaso zuten.

Amaia Amutxastegi eta Miren Esnalek 1986. urtean “Andoingo Papere-tan” Plazaolako trenari buruz egindako lanaren bidez jaso zuen Xabier Arruti andoaindarrak lokomotoraren berri, alegia Leonen zegoela era honetan jakin zuen. Aurtengo udan egon da Xabier Cubillosen trena ikusten, “erabiltzen ez den karril batean dago beste lokomotore hondatu batzuen artean” dio Xabierrek. Geroztik ezin izan du Tren Txikiren aztarna hau Euskal Herrira ekartzearen ideia burutik kendu, Azpeitiko Tren Museoa leku egokia iruditu izan zaio beti. AIURRIIn bertan eta beste medio batzuetan agertu zuen

bere ideia Xabierrek eta deiari erantzunez hiru andoaindar bildu zaizkio ekintza zehatzak egin eta trena ekartzeko saiakera egiteko.


Leongo gobernuaren ezetza

Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak egin omen diote lehenago ere eskari bera Leongo gobernuari. Orain arte ezezkoa izan da erantzuna, han dauden lokomotore guztiak aprobetxatuz museo bat egin nahi dutela esanez, horretarako 100 milioitako aurrekontua ere ba omen daukate. Adituek diotenez ordea, diru horrekin ezinezkoa da lokomotorea berritzea eta, gainera denbora aurrera egiten ari omen da.

Hasteko herrian firma bilketa bat egiteko asmoa daukate. Ekintza honen helburua jendeari “txokolateraren” berri ematea eta indarrak biltzea da. Honez gain urtarilaren 13-14-15an argazki erakusketa egingo dute garai bako Plazaolako trenaren argazkiak, Leonen martxan zegoeneko argazkiak eta gaur egun nola dagoen erakusten duten argazkiak bilduz. Era berean Leitizan ere interesatuta omen daude zenbait bizilagun eta pareko ekintzak egin

daitezkeela uste dute, hala nola Tren Txikia igaro izan zen herri guztietan. Jakin badakite, bi gobernuak orain arte lortu ez dutena lortzeko zailtasunak izango dituztela, baina beharbada, jendearen gogoia ikusiz uste dute berriro ere erakundeen ekimena berpiztu dezaketela Leongo gobernuarengana jotzeko.

31a. Plazabolako Lokomotore



Andoain

MILIKOST

LIBURUDENDA - PAPERDENDA

EGUBERRI ETA JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

1995. agenda, liburu “kapritxoso”, beti nahi izan duzun estilografika, gustoko dituzun egurrezko jostailuak eta hainbat eta hainbat gauza gehiago aurkituko dituzu...

KALE NAGUSIA, 20 ☎ 59 16 57 ANDOAIN

OLASAGASTI

LORADENDA

Nagusia, 44 - ☎ 30 06 20
20140 ANDOAIN

LORAK

HUNTZ

Matia, 44 - ☎ 31 06 41
DONOSTIA



Irekita dago epea

Urtarrilaren 10a bitartean egongo da irekita koartela zeneko babes ofizialeko hamabost etxebizitzetako bat eskuratu ahal izateko eskaria egiteko epea. Udaletxeko areto nagusian jaso daitezke eskaria orriak.

Etxebizitzak 1.800.00-2.500.000 pezetako urteko soldata gordina daukaten familiei zuzenduta daude. %100eko kredituak lortu ahal izango dituzte interesatuek, beraz, alde zuzenik ezer ordaindu gabe edo inongo sarrerarik gabe eros daitezke. Eusko Jaurlaritzak une honetan %4'75ko interesak ari da eskaintzen babes ofizialeko etxebizitzak erosteko. Etxebizitza eskuratu ahal izateko ezinbesteko baldintza dira duela urtebetez geroztik gutxienez Andoainen bizi izatea, edota herrian lanposturen bat izatea. Eskatzaileen artean zozketa egingo da.

34 urte baino gutxiago daukaten erosten kasuan eskainiko da interes mota hori, beti ere etxebizitzak 70m² baino gutxiago baldin badauka. Etxebizitzak daukan balioaren %4eko dirulaguntzak emango ditu Jaurlaritzak, diru hori itzuli behar ez delarik.

Inaguratu dute Ambrosia Olabide Egoitza

Ongizate zerbitzuak eskaintzen dituen zerbitzu guztiak bideratuko dira bertatik

Abenduaren 6an inaguratu zen "Ambrosia Olabide" Gizarte Zerbitzuen Egoitza. Inagurazio ekitaldian HB eta EAJ alderdietako ordezkariak ezik, gainerako udal ordezkariak hartu zuten parte. HB-koen esanetan egoitzako zerbitzu batzuk adjudikatzeko jarraitu den prozedura eta egoitza beraren gestioaren inguruan daukaten ezadostasunak izan ziren, agerpen ezaren arrazoia. Udal ordezkariak gain Diputazio Ongizateko arduraduna den Elvira Kortajarena izan zen bertan.

Momentuz Zaharren Egoitzak bakarrik irekiko ditu bere ateak. Egoitzaren ondoren "Eguneko Egoitza" zerbitzua eskainiko zaie adineko andoaindarrei. Pilar Collantes alkatearen hitzetan egoitza ongizate sozialeko zerbitzu guztien kokalekua izango da.



Nor zen Ambrosia Olabide?

1937an argitaratutako liburuskara batean aipatzen da Ama Ambrosia Bihotz Sakratuetakoaren izena Andoaingo ospe handiko beste pertsona batzuen artean.

Ambrosia Francisca Olabide y Bastarrica zuen izena. Abenduaren 6an Andoainen jaioa. Hamasei urte zituela Jose Bollarekin ezkondu eta bi haur, neska bat eta mutil bat, izan zituen. Hogei urtekin alargun gelditu zen. Bi hilabete zituela hil zitzaion semea.

Bokazio erlijiosoa sentitu zuen, eta Pariseko Bihotz Sakratuen Kongregazioan sartu zen nobiziagoa egitera alabatxoa anai bati zaintzeko utziz. Handik denboraldi batera kongregazioa utzi beharra izan zuen haurra zaintzeko. Gasteizera joan eta miseriak lanetan murgildu zen erabat. Bere alaba ezkondu zenean Bihotz Sakratuen nobiziagora itzuli zen. Osasun arazoak medio, klaustroa

utzi eta berriro itzuli zen Gasteizera. Neska abandonatu eta bizitza arineko emakumeentzat asilo bat sortu zuen bere etxeko gelak horretarako prestatuz Santa Isabel azoan. Berrogei neska ere babestu omen zituen, nahiz eta jantzia eta jana emateko eskean ibili behar izan.

Urteetan lan neketsua egin izan arren, komunitate erlijioso bat sortzeko ideia ez zuen burutik kendu. Ondoren Gasteizko etxeko buru izendatu zuten, Bihotz Sakratuetako Maria Ambrosia izena hartuz.

Bere izaera sendo eta arduratsuegatik Gasteizen beste etxe bat eraikiarazi zuen. 1898. urtean fundatzailea hil zenean, Institutoko Ama Nagusia izendatu zuten. Kargu hau 1904ean utzi zuen, eta Gasteizeko etxera itzuli zen. Hantxe hil zen 1923ko abuztuaren 23an.

Txomin Etxeberria



LANBIDE EZBERDINEN
ARTEKO KOORDINAKETAK

GASA ETA BEROGINTZA

KALE NAGUSIA, 59 - ☎ 59 38 44
ANDOAIN

- ITURGINTZA
- GASA
- BEROGAILUAK
- ELEKTRIZITATEA
- IGLTSARITZA



MENDI
AUTOESKOLA

AGUSTIN DE LEITZA, 11 - ☎ 300604
20140 ANDOAIN



Sinatu berri dituzte bi hitzarmenak

Kiroldegiaren egitasmoa eta hirigune historikoaren ikerketa ahalbidetuko dituzte

Asteasu

Asteasuko Udalak bi hitzarmen garrantzitsu sinatu berri ditu: frontoiaren atzealdean eraikiko den kiroldegiaren proiektua ahalbidetuko duen hitzarmena batetik, eta hirigune historikoaren ikerketa sozio-urbanistikoa martxan jarriko duena, bestetik. Eusko Jaurlaritzak, Diputazioa eta Udala bera izan dira bi hitzarmenen sinatzaileak.

Kiroldegi babestuaren proiektua eta finantzaketa zehazten ditu lehenengo hitzarmenak, alegia hiru erakundeen artean ordainduko dituzte eraikuntzaren kostuak. Eta halaber, erakunde gorenen onespena behar du proiektuak. Eraikuntzaren ondorengo mantimendua, zaintze eta konpontze lanak Udalak hartu behar ditu beregain. Ezinbesteko baldintza da Pello Errota ikastetxeko ikasleez gain, gainerako herritarrentzat ere kiroldegiak atek zabalik izatea.

Kiroldegia txikia baina nahikoa izango dela aurreratu digute; futbitoan, eskubaloian eta saskibaloian jokatzeko pista bat izango du eta ohizkoak diren aldagela eta dutxak. Frontoiari dagokionez, oraindik zer gertatuko den ez dago oso argi, izan ere, frontoia inguru horretan eraiki nahi den kirol gunearen egitasmo orokorrean txertatu nahi dute. Hitzarmenetik kanpo Asteasuko Udalak

oraindik ere futbol zelaia egiteko asmoa darabil buruan. Asmo hauek guztiak aurrera eramateko Udal ordezkariak bilduak dira dagoeneko zenbait herritarrekin eta ikastetxeko ordezkariarekin, eta aurrerantzean ere lanean jarraitzeko, adierazi digutenez, Udalak gogo onez jasoko ditu herritarren beste hainbat proposamen.

Ikerketa sozio-urbanistikoa

Udalak eta Eusko Jaurlaritzak sinatutako hitzarmenaren ondorioz, Asteasuko hirigunearen ondare kultural eta historikoaren azterketa egin ahal izango da. Ondoren, galtzeko arriskuan edota hondatuta dauden guneak eta eraikuntzak konpontzeko egitasmoari ekingo zaio. Egitasmo horiek gauzatzeko dirulaguntza bereziak eskaini ohi dizkie Eusko Jaurlaritzak etxe eta eraikuntzen jabeei, hala nola eraikuntza publikoen kasuetan. Ikerketa honek berez, herrian dagoen ondasuna zehatz-mehatz emango du ezagutzera. Ikerketaren kostua 2.400.000 pezetakoa izango da, diru honetatik Udalak %10a baino ez du ordainduko. Iker-

keta egingo duen enpresa edo erakundeak bost hilabeteko epea izango du lana burutzeko. Udalan adierazi digutenez ahalegin handiak kostatuko hitzarmena izan da hau, izan ere hiru urte behar izan du Eusko Jaurlaritzak Asteasuko Udalaren eskaria onartzeko.



FOTO-BIDEO-ARGAZKI

KALE NAGUSIA, 19 behea
☎ 30 07 27
ANDOAIN

BIKOITZ

- Argazkiak errebelatzen ditugu
- Estudio argazkiak egin
- Karnet argazkiak instantean
- Ezkontza erreportaiak. Argazkiak, bideoak

EUSKALDUNA



Edaritegia

Bilar-jokorako aretorik
aproposena!!

Txermin kalea, 4 - ☎ 69 36 47 BILLABONA

Herriz herri

Aiztondo "Aiztondon barrena"

Euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez argitaratu dute liburua

Aduna, Alkiza, Asteasu, Larraul eta Zizurkilek osatzen duten esparru geografikoa garai batean Aiztondok berak hartzen zuena baino zabalagoa da. Hala ere, inguru horiek ezagutzera emango dituen liburua izenburua jartzeko antzinako izena berreskuratu dute. Imanol Goikoetxea eta Mikel Elorza dira "Aiztondon barrena" izenburupeko liburua egileak, Aranzadi Zientzia Elkarteko kideak biak. "Ezagutzera emateke dagoen altxortzat" hartu du Imanolek Aiztondo bailara, eta hain zuzen ere egun hauetan argia ikusiko duen liburua asmoa hori bera da, herrikoei nahiz kanpokoei aukeratutako ibilbide batzuen laguntzaz Aiztondo ezagutaraztea. Argazkiz eta grafiko osatutako 100 orriko liburua jendearen arreta eta interesa bereganatzea du helburu.



Imanol Goikoetxea

Egitasmoa ez da berria; orain urte batzuk Asteasuren baliogarrtasun turistikoa aztertu zuen ikerketa egin zuten bi kide hauek. Ikerketaren ondorioz, besteak beste, horrelako argitalpen bat interesgarria izango litzatekeela aipatu zuten. Era berean, Asteasura bakarrik mugatu ordez, ingurune zabalagoa hartzea komenigarritzat jo zuten. Hausnarketa horien guztien emaitza da, bada, liburu hau. Bi egileak herriko jendearen laguntza ere izan dute liburua osatzeko. Izan ere, egunez egun herrian bizi den jendearen iritzia bezalakorik ez dago liburuetatik jasotako informazioarekin alderatzeko. Beraz, egileak informazio biltzen ari zirela, herritar batzuen aholkuak eta iritzia jaso dituzte.

Hamazazpi ibilbide

Irakurleak abiapuntu ezberdinak dauzkaten hamazazpi ibilbide aurkituko ditu liburuan. Ibilaldiaren iraupena, zailtasuna, gora-beherak eta bertan aurki daitezkeen intereseko guneei buruzko informazioa ematen da, balio ekologikoa eta kultural-historiko-arkitektonikoak azpimarratuz: pagadiak, landa zabala, antzinako etxe dotoreak... "Gezurra dirudi Donostiatik hamabost minutura dagoen txoko honek hain 'euskaldun eta jator' irauteak" dio Imanolek inguruneak txundituta. Ibilbideak osatzeko makina bat paseotxo emanak dituzte Imanol eta Mikelok Aiztondoko bazterrak ezagutzen. Hain zuzen ere, hainbeste aukeren artean, ibilbiderik egokienak eta interesgarrienak aukeratzea izan omen da lanik zailena, "azkenean ibilbide mamitsuenak aukeratu ditugu" esan digu Imanolek. Liburuak badauka bestelako edukirik ere: Aiztondoko mapa, deskribapen orokorra, txoko eta eraikuntza inte-

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa fundazioa

fundación kutxa

- gipuzkoa donostia kutxaren
- gizarte-ekintza
- obra social
- de la caja gipuzkoa san sebastián



Asteasu Aitzondoko buru

resgarriak, biztanlegoa, soziologia, ekonomia, Aitzondoko Alkatzaren historia, lauki estadistikoa herriz herri, artisauak, erosketak egiteko gu-neak eta bestelako zerbitzu interesgarriak.

Nekazal turismoaren beste osagaietako bat

Bertakoei nahiz kanpokoei edo turismoari, azkenengo hauei batipat dago zuzenduta liburua; liburua edota liburuak hobeto esateko, izan ere hiru liburu dira argia ikusi dutenak: euskarazkoa, eta gaztelania eta ingelesezko itzulpenak. Egun landa esparrua garatzeko edo laguntzeko dagoen egitasmoari bultzada eman nahi zaio liburu honekin, alegia, nekazal turismoari. Eta turismo mota hori aukeratzen dutenei euren aisialdia hobeto antolatzeko aukera eman nahi zaie argitalpen honekin.

Txoko ezezagunak

Liburuari esker txoko interesgarriak aurkitu ahal izango ditu ibiltariak: bi burdinola esate baterako, Asteasu eta Larraul aldean bata eta Zizurkilen bestea. Gainera, lehenengo eta egungo parajeak konparatzeko aukera izango du irakuleak argazkien laguntzaz: 1930eko Asteasu, Alkiza, eta Zizurkilgo udaletxeen argazkiak emango dira ezagutzera, eta 1941ko Andazarrateko bista bat. Argazkian ongi baino hobeto antzematen dira garai bateko sanatorioa eta meategietan erabiltzen zen teleferikoa eta bi-deak.

“Jendeak esango du asmatu dugun ala ez”

Horrelako ekimenen baten aurrean txoko hauek publiko zabalari ezagutzera eman behar ote zaizkion galdera beti geratzen da erantzuteke. Batzuek, horrelako guneak gorde egin behar direla diote; beste batzuek ezagutzera eman ondoren baino ezin direla babestu. Oraingo honetan ere denborak emango du, ziur aski, erantzunik egokiena, bien bitartean, Imanol Goikoetxearen hitzei jarraituz, “jendeak esan beharko du asmatu dugun ala ez”.

SORTU K O O P .
Grafikak

Elbarrena Auzoa, 15 - Tel. 69 00 37 - Faxa: 69 07 58
20150 ZIZURKIL (Gipuzkoa)

OGi ZURi

Okindegia

ZURI ZURIA...

Lizarra kalea, 32
☎ 69 18 96 ASTEASU

OGi-GOXO

Okindegi eta Gozotegia

EDO BELZTUXEAGOA,
BAINO GOXO
GOXUA!!

Kale Nagusia, 26
☎ 69 32 94 BILLABONA




Herriz herri

Billabona-Amasa

N-I errepideko lotune berria

N-Iko "puntu beltza" izan da hasieratik Billabonako lotunea

Eskari bat baino gehiago egin ondoren, Diputazioak, azkenean, onartu du N-I errepidearen bidegune berria egitea Billabona parean. Orain arte N-Ieko punturik beltzena izan dena, alegia, Billabonako sarrera-irteera, eraldatu egingo dute, eta bestalde, errepidea hirigunetik urrunduz herriari mesede handia egingo diola aurrikusten da, zerbitzuz kanpo geratuko den errepide zaharreko gunean oraindik zer egingo den erabakita ez egon arren.



Ertzaintzak berak adierazi izan du egungo Billabonako lotunea N-Iko punturik beltzena dela, oinezkoentzat nahiz ibilgailuentzat, izan ere, errepidera irtetzeko lau karrilak igaro behar izaten dituzte ibilgailuek, eta bihurtzea oso arriskutsua da. Bestalde, lanak egiteak zailtasunak ere izango dituela aurreratu du Diputazioak, eta behin baino gehiagotan moztu beharko da errepidea, karril bakarra utziz.

Alegazioak

Proiektua bera zalantzan jartzen ez badute ere, sei bizilagunek, Tolosa-Donostia autobus lineak, eta Udalak berak alegazio batzuk egin dizkio proiektuari.

Bizilagun batzuek errepidetik euren lurretara lotura egokitzeko eskatzen dute, beste batzuek errepidea baserritik gertuegi igarotzen delako kexu dira eta beste batzuek euren lurretan lanek eragingo dituzten kalteak kontuan hartzeko eskatzen dute.

Tolosa-Donostia autobus lineak lotunearen azpian oinezkoentzat bidea egokitzeko eskatzen dute Agarratz auzokoentzat eta Adunako zu-

bitik gertu bizi direnentzat autobusa errazago hartu ahal izateko. Udalaren alegazioak honako hauek izan dira: N-I errepidea egin zutenean Arratzainerako igoera ahalbidetzen duen azpiko pasabidea egin zuten, baina pasabidea oso baxua da, landroverrak baino ibilgailu altuagoak ezin dira igaro, beraz, Amasatik bueltan jaitsi behar dute herrira bertakoek. Hori dela eta, Udalak pasabideari altuera handiagoa emateko eskatu dio Diputazioari bertan egingo diren lanak aprobetxatuz. Diputazioak, ordea, lanak bere erantzukizuna ez direla erantzun du, eta Udalari dagokion gai bat dela. Eduardo Laborderen ustez, argi dago Udalak ez duela gai horretan zerikusirik, errepidea egin zenetik gaizki egingako lana dela. Bestalde, Antxineko parajeetako iturriekin kontuz ibiltzeko eskaria egin du Udalak, bertako urak gal ez daitezen. Eta azkenik, zerbitzuz kanpo geratuko den egungo errepide gunean ere nolabaiteko konponketa edo egokipena egiteko eskatzen dute, arau subsidiarioetan ezer aurrikusita ez egon arren.

Bideune berriak 1.500 metro izango ditu. Lanak Jesusen Bihotza ikastola atzetik hasiko dira, Arratzainera eramaten duen pasabide inguruan, Agarratz aldera igoko da burdinbidearen gainetik igaroz eta berriro lotuko zaio N-I errepideari Billabona eta Andoain artean. Lanak berehala hastekotan direla aurreratu digute, eta hemezortzi hilabetez iraungo du, hau da, 1996ko uztaila arte gutxienez ez dituzte amaituko. Diputazioak 1.300.000.000 pezetako aurrekontua aurrikusi du lanetarako. Gainera, lanak aurrerago errepidean hiru karril eraikitzeko moduan egingo dituzte, momentuz bi karril baino ez badira izango ere.

Egungo errepidea zerbitzuz kanpo geratuko da. Udaleko arau subsidiarioetan guneari buruzko egitasmorik jasotzen ez bada ere, aisirako gune bat egiteko leku aproposa dela adierazi digu Eduardo Laborde, Billabonako alkateak.



Hirugarren adinakoentzat ekintzak

Osasunari buruzko hitzaldiak eta diapositiba emanaldiak

Azaroaren 27an bildu ziren adineko hamasei lagun Larraulgo udaletxean Ainhoa Etxabe hirugarren adineko dinamizatzailearekin batera. Bileraren helburua adineko pertsonen zuzenduta Udalak antolatzea pentsatuta dauzkan ekintzei buruz euren iritzia jasotzea zen.

Larraulen ezezik, Alkizan eta Asteasun ere egin dituzte antzeko bilerak eta Ainhoak dioenez uste baino harrera hobea egin zaie proposamenei. Ondoren Adunan eta Zizurkilen egingo dituzte bilerak.

Besteak beste, eta hasteko, hilean behin ekintzaren bat antolatzea erabaki zuten bileran. Hitzaldiak eta diapositiba emanaldiak izan ziren harreara onena izan zuten proposamenak. Gaiak berriz osasunari buruzkoak izatea proposatu zuten. Eta eguna eta ordua ere hitzartu zuten: ostegunetan laueta. Hitzaldiei, ziur aski, urtarrean emango zaie hasiera eta hilabete batzuetan iraungo dute.

Pertsona hauen aisialdia betetzea da ekintza hauen guztien helburua. Udalak izan du ekimena, izan ere, eta bilan ziotenez "beraiek ez daude horrelako gauzetara ohituta", Ainhoak berriz dio, behin horrelako ekintzak egiten hasiz gero, oso posible dela atsegin hartzea. Kontuan hartzekoa da, gainera, orain arte Asteasukoek antolatzen zituzten ibilaladiekin gain, gauza handirik ez zaiela kultur eta aisialdi mailan eskaini. Bere ustez jendea dinamizatzea da

hasierako ekintza honen helburua, eta aurrerantzean ere euren kasa ekintzak antolatzen jarraitzea.

Aisialdia bete

Ernio Behean adinekoentzat egoitza edo bilgune bakarra dago momentuz, Zizurkilen. Biltzeko toki falta hori ere bada, gaur egun pertsona hauek bizi duten isolamenduaren arrazoia. Hain zuzen ere asmo hauek guztiak euren arteko harremanak estutzeko eta aisialdia betetzeko balioko dutelekoan daude. "Aisialdia daukatene!" dio Ainhoak, izan ere pertsona hauek ez zaie bururatu ere egiten aisialdirik daukatene, jubilatuta eta gero ere, lanean jarraitzen baitute baserrian.

Ainhoak esan digunez antolatzaileek ez daukate inongo arazorik nahi adina ekintza antolatzeko, baina lehenengo jendeak egiten dien harreara ikusi nahi dute.



Idea berriari oso harrera ona egin zaio herrian

URBIETA ANAIAK

GARRAIOAK

KALITATEZKO SU EGURRA



- Neurrira moztuta eta urte osoan
- Haritza eta pagoa
- Etxerainoko zerbitzua

GARRAIOAK ORO HAR

Larraulgo plaza, Etxeberri etxea, 1 - ☎ 69 35 76 - LARRAUL

GABON GAUA:

Ohitura zaharrei jarraituz aurten ere Gabon Gauan kantuan iritzeko deialdia egin du Udalak. Parte hartu nahi duten guztiak, bil daitezela bazkal ondoren herriko enparantzan. Baserri baserri joango da taldea trikitixak alaituta. Aurten bildutako dirua elizako erretabloaren konpontze lanak ordaintzeko erabiliko da.

ETXE ERREKETAKO ELKARTEAREN

OHARRA:

Abenduaren 30ean gaueko bederatzietan bilera bat izango da udaletxean etxe erreketako elkartearen edo hermandadearen etorkizuna eta larrauldarrek elkartearen parte hartzeko daukaten interesa azartzeko. Dei berezia egin zaie larrauldar guzti bileran parte har dezaten.



DANENA, historia handiko kirol elkarte

Egungo zuzendaritza Gipuzkoako kirol elkarteetan gazteena

DANENA kirol elkarte ez da gaurkoa, bere futbol eta txirrindulari taldeak oso ezagunak eta estimatuak izan ziren garai batean, hala nola atletismo eta batel taldeak. Berria edo nahiko berria ordea, elkarteko zuzendaritza da. Berria eta gaztea gainera, Gipuzkoan kirol elkarte baten arduradun zuzendaritzarik gazteena da. Gazteak izan arren, bost urteetan esperientzia handia ere bereganatu dutela esan beharra dago, Mikel eta Ander entzunda ez dago horretan zalantzarik. Astelehenero biltzen dira Kultur Etxean elkartearen eta taldeen martxa zuzendu eta egitasmo berriei ekiteko. Gaur egun kirol elkarteetan 150 gazte irudirik egiten dute kirola.

Haurrek euren aisialdian kirola egitea da elkartearen lehenengo helburua, hala ere, elkarte elkarte soil bat baino zerbait gehiago ere bada: hezkuntza gune eta lagunarte atsegina. DANENAKO haur eta gaztetxoek, behintzat, hala diote. Dena den, Anderren ustez, lehengo eta oraingo gazteen artean badago ezberdintasunik: "Lehen kirola gehigo, sutuago bizitzen genuela iruditzen zait, oraingo haurren artean ez dut grina hura somatzen". Arlo honetan gurasoen animoa eta laguntza ere zein garrantzitsua den azpimarratu digute.

Udalarekin harreman eskasak

Udalarekin nahi bezain harreman onak ez dauzkatela iruditu zaigu hala ere, beren hitzak entzunda. Harreman onak baino, herraman ezaz dira kexu gazte hauek. Beren eskari eta kexak behin baino gehiagotan helarazi omen dizkiete, baina erantzunik jaso gabe. Elbarrena zelaia egoera da kezkatzen dituen gaietako bat: "Bederatzi urtean gutxieneko inbertsioak egin dituzte. Udal lokalak direnez, bururaten zaien guztia sartzen dute aldageletan". Konponketak egin behar izan direnean ere, eurak izan dira argindarra edota baldosak jarri dituztenak. Otaño ikastetxe-ko instalakuntzak berriak direla eta, gustora daude bertan.

Diputazioak Zizurkilen eraikitzeke asmoa daukan "luxuzko" kirol instalakuntzei buruz ere hitz egin dugu. Eta ideia primerakoa iruditzen zaiela esan digute. Euren seme-alabak ikustera iritsita konformatuko liratekeela ere gaineratu dute. Instalakuntza batzuk ala besteak DANENAKOek lanean jarraitzen dute, eta aurrera begira egitasmo berriak dauzkate, besteak beste, mendiko bizikleta ibilaldi bat antolatzea bururatu zaie. Horrez gain, urtero maiatza aldean egin ohi duten ekintza kulturala zein izan ote daitekeen ari dira dagoeneko pentsatzen.


1.200.000 pezetako aurrekontua daukate urtean eta Udalak 400.000 pezeta ematen die, gainerakoa elkarteko kideen eta bestelako iturrien bidez jasotzen dute. Aurki herriko denda eta enpresetan kanpaina bat egiteko asmoa daukate elkarteko kide izatera gonbidatuz.



Boleibol taldea

Futbola, boleibola eta alterofilia dira egun elkarteak dituen hiru sailak. Futbola da lagun gehien biltzen duena, 7-18 urte bitarteko ehunen bat gazte jokaten dute futbole. Astebururo izan ohi da Elbarrenan partiduren bat edo beste. Boleibolak nesken artean izan du batez ere, arrakasta. Eta orain arte emaitzak txarrak baino, onak izan dira, Gipuzkoako finalistak izatera ere iritsi baitira. Alterofiliari dagokionez, tartean Europa mailako txapeldunak ere badi-rela gogoratu.

LOATZO ASEGURUAK - ASESORIA



**ZURE ETORKIZUNA
BIZI ASEGURUA**

JOXERRA GARMENDIA MUJICA
IBON GARMENDIA UGARTE

Laskorain kalea, 16 - ☎ 65 18 78 - TOLOSA
Antxin kalea, 3 behe - ☎ 69 39 13 - Faxa 69 38 43 BILLABONA



ERnioBIDE
JUAN CARLOS ARICETA

ZURGINDEGIA

**-Erreformak oro har
-Neurrira egindako armairuak**

Agaraitz auzoa, z/g - ☎ eta Faxe 69 26 75
BILLABONA

“Hator, hator, mutil etxera...”

Eguberriak; hutsik egin gabe 2.000 urtetan eraberritu den ospakizuna

Egun hauek iritsita gutxi dira, ia inor ez, Gabon egunetako erakarpen, xarma, ohitura edo eginbeharretatik libratzen direnak. Bestade, eta nahi izanez gero ere, libratzea ia ezinezkoa litzateke, telebistako iragarki eta saio bereziek, kaleko dendetako erakusleho, apaingarri eta Gabon kantek, eta honen pareko beste kronikaren batzuek hamabost egun lehenago hasten baitira “berri ona” gogorarazten. Askorentzat Eguberriak opor egunak direla gehitzen badiogu horri, ge

hientsuenok izan ohi dugu Gabonak iristeko gogo. Eta azkenik, bati eta besteari galdetu ondoren, gehiengoaren artean motibaziorik nagusienak Gabon Gaueko familia giroa, afari oparoa eta egun scinalatuetan ezinbestean egin behar izan ohi diren parrandak direla iruditu zaigu. Inork garai bateko giro hotza eta elurra bota ditu faltan, bestalde. Eta azkenik, ia gehienek ilusioz, sorpresaz eta kolorez betetako haurtzaroko Eguberriak gogoratu dituzte melankonia puntu batez.



Batzuek Gabonetan gustokoen dutena parranda, opariak eta jan-edan oparoak diren bitartean, hain juxtu beste batzuek horixe bera da gutxien estimatzen dutena, edota gaitzesten dutena. Azken horiek familia giroa dute gogoko, eta uteroko bilkurari ematen diote, alderdi gastronomikoari bezainbeste, garrantzia. Eguberrietako irudi, kolore eta eskenografiak ere dexente erakartzen ditu. Lehenengoek, “konpromezuzko” familia arteko afari-bazkariek, hain zuzen ere, nekatzen dituzte. Dena den, bai batzuek bai besteek eskeptiko samar agertzen dira gabon izpirituairekiko; data iritsi baino aste batzuk lehenago behintzat. Eguna iritsita, auskalo! Izan ere, erresistentzia handiena agertzen dutenek ere badaukate uterokoa eta tradizioari jarraituz betetzen duten zeremonia edo ohitura: Gabon Gaueko kantu saioa, lagunarteko derrigorrezko potea afal orduan, kandelatxo batzuk mahaiari, opari-sor-

presa lagun minari, afalostean *eskoba*-n partida batzuk, edo telebista kateren bateko hamabi kanpaikadak entzun bitarteko mahats jana. Izan ere, jakina da, ohiturak denborak aurrera egin ahala, lege bihurtzen direla.

Ohiturak lege

Ohiturak: abenduaren 24ean hasi ohi da tradizioa; kantuan atera; etxeoandre eta etxekogizonek ezik, beste guztiek poteo mundiala; familia arteko afari aparta; ondoren gerta daiteke ordurako “bake giroa” apur dezakeen haserrerako gaia: Gabon Gauen kalera irten ala ez irten. Eguberri egunean opariak jasotzea izan ohi da lehenengo eginkizuna, eguerdian meza nagusirako ordua batzuentzat; eta konturatzerako bazkalordua, askok oraindik bezperako oka kendu ez dutela. Jarraian urdailari eta poltsikoari atsedean pixka bat emateko egun batzuk izaten dira.

Eta handik aste betera Urte Zahar Eguna: arratsaldean somatzen da ia kalean gaueko parranda iragartzen duen giro harrotu samarra; tradiziozko afaria, urrutiko lehengusu, osaba-izeba eta aiton-amonak lagunduta batzuek, eta telebistako "umorezko" saioak eta garaiko *show*-en artean aukeratu ezinda *zapping* eginez beste batzuek; alkohol eta bestelako "susperzaileetan" blai egindako gupasa luzeak jarraitzen dio afariari. Biharamunak ikuspegi ezberdinak izan ohi ditu: gorputzari inongo astinaldirik eman ez eta mendia gogoko dutenak Adarra, Ernio edo beste ton-torren batera igotzen dira; eta gainerakoek bazkalordua iritsi bitartean lagunartean edota telebista espainoleko eski jauzi probak ikusiz komentatzen dituzte bezperako pasadizu gazi-gozoak. Errege Gau eta Eguna galdu dute gaur egun gazteentzat urte batzuk dauzkatenentzat izan ohi duten xarma. Izan ere, horretan ere aldatu dira ohiturak, eta Olentzerok ordezkatu ditu hiru maiestateak. Beraz, Errege Egunean bat baino gehiago hurrengo lan egunak iragartzen dion depresio txikia hasten da nabaritzen.

Norberagatik baino besteengatik jarri ohi dira askotan Gabonetako apaingarriak

Zuhaitza etxe batzuetan, jaiotza beste batzuetan, edota biak. "Inor etxera etorrita ere..." diote batzuek, "ilobatxoengatik..." beste batzuek, "lehen Santo Tomasetan jarri ohi genuen, orain bezperan eta korrika eta presaka gainera" askok eta askok. Ezaugarriren bat bai behintzat toki guztietan: pinuarekin batera, (hartzea debekatuta egon arren) gorosti edo elorri adar bat askok; zuhaitz artifizialak gero eta gehiago, ekologismoz baino, erosotasunaz.

Hautzaroko Eguberriak

"Hautzaroko Gabonak, haiek bai Gabonak!". Zer ote den ilusioa edukitzea! Edadekoek erregeei idatzi ohi zieten gutun luzea gogoratzen dute, baita Ekialdetik etorri ohi ziren errege nekatuentzat bezperan leiho ondoan jarritako oinetako eta goxokiak ere, zelatan igarotako gauak gurasoak *infraganti* harrapatzeko, eta goizean goiz jaiki eta zuhaitz azpiko opariak. Hura poza hura! Denek, ilusio hori bizi izan dutenek behintzat.

aitortu digute haurrei halako ilusioa mantentzeak merezi duela. "egia" gero eta lehenago jakiten duten arren.

"Hura bai ilusioa umetan!"


Gabonak; urtero-urtero, orain arte behintzat hutsik egin gabe, eraberritu den ohitura. Elizak orain 2.000 urte

Gabonetako loteria edo "Osasunaren loteria"

Andoaingo Kale Nagusian dagoen loteriako 1. administraziora jo dugu Gabon egunetan saltzen den loteriaren berri izateko.

Nahi izanez gero abuztuan ia salgai omen dago Gabonetako loteria herrietan. Herrikoek baino, Europa aldean lanean dauden eta oporrak herrira itzultzeko aprobeztatzen dituztenek erosi ohi dute udan loteria, zorte pixka bat izan eta atzerritik etxera itzultzeko esperantzaz edo. Bi hilabete lehenago herriz, lantegi, denda, taberna, elkarte eta bestelakoetan salgai jartzen dutenek erosten dute. Gainerakoek abenduaren hostetik aurrera, hau da kobratu eta gero.

Erosten dutenek ez omen dira normalean jokalarri amorratuak, hau da kapritxo edo ohituraz erosten omen dute egun horietan. Bestalde, inoiz jokatzen ez duenak ere ezin izaten omen dio tentaldiari eutsi. Gastatu ez omen dute asko gastatzen, gehienek dezimoren bat edo beste, merkeena, 500 pezetakoak gehienbat. Hala ere, dudarik ez dago orain dela urte batzuk askoz gehiago saltzen zela, "krisia" diote batzuek; beste batzuek herriz, halakoetan gehiago saltzen dela e-



Dezimo bat edo beste gehientxuenek erosten dute

saten dute. Dena den, zaila da, esan digutenez, Gabonetako loteriarekin aberastea, ohitura izaten baita senide eta lagunaren artean banatzea -ilusioa konpartitua da, nonbait.

Gabonetako loteriari "Osasunaren loteria" ere esaten omen zaio, izan ere, diru eta maitasunik ezean, askok osasunaren kontsulamendua izaten baitute. Dena den, Eguberrietan jokatu ez, edo tokatu ez zaionak urtarilean 5ean dauka hurrengo aukera "El Niño loteriarekin". Hortik aurrerakoek bono-lojo, kiniela eta beste hamaita zozketetan jarri ohi duten euren ilusioa eta dirua. Eta ez gutxi, alajaina! Esanak esan, Eguberri eta zoriontsuak opa gabe ezin geu ere pasa.

ezarritako kultura eta gaur egun Mendebalde osoan sinestunak eta fedegabe gehienek, ia denek, debozio handiago edo txikiagoz, zeremonia handiagoz edo txikigoz betetzen duten ospakizuna. Inork ez du ukatzen orain berrogeita hamar urteko Gabonak ez direla gaur egungoak; orain berrogeita hamar urte ordea, gizartea ez zen gaur dena. Batzuei 2.000. urtearen muga igarotzeak eragiten dien zentzu bereziaz jantzita, nola izango ote dira berrogeita hamar urte barruko Eguberriak? "Ohiturak bihurtzen dira lege", diogu berriro ere. Zalantzarik gabe gure gizartea goitik behera aldatuko lukeen iraultza bizi beharko genuke halakorik gertatzeko. ■



Haurren gaua

Etxekoandre finak dena pronto

Eguberriak familia eta etxe giroko ospakizunak direnez, egun horiei buruz etxeko andre baten iritzia jaso dugu. andreak izan ohi dira eta Eguberrietako zeremonia guztiak bete daitezten prestaketa lanetaz normalean arduratzen direnak, alegia, afari-bazkariak egiteko frigorifikoak hornitu, zuhaitza erosi, etxea apaindu, haurrak baserritarrez jantzi eta ez hain haurrei arropak pronto utzi, opariak erosi...

Prestaketa lanei dagokienez ere ohiturak aldatu egin dira sukaldean gero eta lan gutxiago hartuz, apaingarriak urrituz, eta opariei dagokienez, behin "umeak koskortu ondoren" beharrezkoak dituzten gauzak erosiz: familia osoa azpiko arropaz ongi hornitzeko garaiia izaten da gehienetan. "Umeak diren bitartean ilusioa egiten du" esan digu, "baina gero..."

Dudarik ez izan, egun horietan diru asko gastatzen dela. Zertan? Jan-edanetan gehienbat. Hau gauza bitxia, hala ere; etxekoandre honek garai bateko Gabon Gauan afaldutako olio azak, azalora, eta makailaua bezain gauza goxorik ez omen du beste Eguberrietan inoiz jan. Horren ordez, zizka-mizkek, bixigua, solomoak eta solomiloak beteko dute bere mahaia: turroia eta mazapanak berriz mahai ondorenak. Urteroko konpota berriz, etxekoandrearentzat.



Non aukeratu izaten da



Joxean Larraga
Billabonako erretorea

"Berri ona zabaltzeko egunak"

Eguberriak Elizaren ospakizun nagusienetakoak dira, Pazko egunen ondoren. Jainkoa gizon egin zeneko eguna ospatzen du Elizak, "eta, hain zuzen ere, nik sinesten badut Jesusengatik da, hau da, gizon egin zen Jainkoagatik" dio

Joxeanek, "horrek ematen dio, bestelde hurbiltasuna Jainkoari".

"Berri ona" zabaltzea da Elizaren egun horietako funtziorik nagusia. "Zertan datza ordea, mezu hori?" galdetu diogu. "Gaurko gizon-emakumentzat eta herri honetan bereziki itxaropen, bake eta justizia mezu bat iragarri behar dugu, izan ere hauen falta da gizaldi hone-

tako gure herriko gaitzik handiena" erantzun digu, "mundua justizia egarriz dago" gaineratzen du, "eta horregatik dauka gaurkotasuna Jesusen mezuak".

Jakina da kristauak Jesusen mezuarekin bat eginda bizi beharko lituzketela egun horiek. "Dena den, Elizak ez dauka kristautasunaren monopolioa" gogoratu digu Joxeanek, "eta mundu honetan badira 'kristau anonimo' asko lekzioren bat ere eman diezaguketena. Bestalde, egia da baita ere, Gabon Egunean bereziki urte osoan elizara joaten ez diren bataiatu askok hartzen duela parte ospakizunetan, tradizioak edota barreneko sentimendu zahar-berri batek bultzatuta.

Era berean Joxeanek kritikatu egin ditu Eguberri egunetako hainbat portaera: kristau mezuaren manipulazioa, komertzioak eta komunikabideek batez ere; Eguberri egunak "azalean bizitzea" kontsumismo hutsean; eta Urte zahar eta Urte berri egunen inguruan sortu den jai zehar-artifiziala.

Andoain

“Gerra zibila andoaindarren begietatik”

Urteetan ezkutatuta egon den historiak argia ikusiko du

Larramendi Kultur Bazkunak hurrengo egunetan emango du argitara “Gerra zibila andoaindarren begietatik” izenburupean Xabier Lasa andoaindarrek osatutako liburua; zalantzarik gabe, Andoaingo historia, andoaindarrak beraiek, aurreko belau-naldien jarrera eta portaerak eta egungo egoera politikoa ulertzen lagunduko duen liburua. II. Errepublika 1931. urtean aldarrikatu zenetik hasi eta gerra ondoren, 40.eko hamarkada bitarteko epea deskribatzen du bertan egileak. Pasadizuz betetako liburu mardul honetan garaiko giro politikoa, herriko gertaera seinalagarrienak, eta batez ere egun haietako andoaindarren bizimodua, protagonistek beraiek kontatua, aurkituko ditu irakurleak.


Aiurri: Nola dago osatuta liburua?

X.L.: Hasiera batean herriko lekukoen testigantza jasotzea zen soilik nere asmoa. Baina berehala konturatu nintzen, horrek guztiak nolabaiteko testuingurua behar zuela. Bestalde, gerra zibiletik hastea ere ez zitzaidan nahikoa iruditzen; Errepublika garaiko giroa kontatzea ere derrigorrezkoa iruditu zitzaidan, hala nola gerra ondorena. Era honetan lana gero eta zabalagoa eta sakonagoa bihurtu zen. Gainera, lekukoek gertaerei buruz daukaten ikuspegi orokorra nahiko mugatua delakoan nago, eta testuingurua ongi azaldu beharra zegoen.

“Andoain orokorrean nazionalista, euskalduna eta elizkoia zen”

A: Nola zehaztuko zenituzke urte haiek?

L: 1931 aurretiko diktadura gogorra eta anitza izan zen. Ondoren Errepublika aldarrikatu zen, gizartearen oinarriko aldaketa batzuk aurrera eramateko aukera zabaldu zen, esperantzaz betetako garaia. Baina erregimen berriak bost urte baino ez zuen iraun eta ondoren berrogei urteko geldialdia izan zuen historiak. Andoaini dagokionez, Gipuzkoako egoera orokorrekarekin pareka daiteke gehienbat: lehenengo eta behin esan Elizaren eragina handia izan zela. Bizitza politikoan partehartze zuzen-



Laisterrera argitaratuko den liburuaren azala

zuzena izan zuen. Andoaindar euskalduna, normalean, oso fededuna eta elizkoia zen. Kontzientzia eta hezkuntza politikoa urria zuen orokorrean. Ezkertiarrei salbu marxismoa, anarkismoa eta horrelako kontzeptuak arrotzak zitzaizkien gehienei eta erdaldunekin identifikatzen zituzten. Politika arloan “eraman errezeko jendea” zen orokorrean. Herri nazionalista eta euskalduna zen Andoain. Urte haietan oraindik ere nekazal ekoizpena zen garrantzitsuena, Algodonera zen ehun langile baino gehiago zituen enpresa bakarra. Antzerkian oso ondo ikusten dira garai hartan nagusiak ziren ideiak, hain zuzen ere Sabino Arana-Goirik indarrean jarri zituen “Jangoikoa eta Lege Zaharra”; Euskal Herriari buruzko idelismoa,

erromantizismoa, ohitura eta usadioen eta familaiaren defentsa. Arrazismo kutsua ere bazegoen erdaldunekiko.

A: Andoaindarrek nola bizi izan zuten gerra zibila?

L: Oharkabean hartu zituen erasoak. Konturatzeko ehizako fusila bizkarean hartuta ikusi zuten euren burua. Ez zekiten disziplina zer zen, ideia politiko garbirik ez zeukaten. Andoinen adibidez, Irujo nazionalista etorri eta mobilizatu beharra zegoela esan zuen arte, jendea zer egin ez zekiela ibili zen. Donostia, Pasaia, Eibarreko ezkertiarak izan ziren salbuespena, gerriletan eta altxamenduetan ibiliak baitziren. Orokorean herrian izua nagusitu zela esan daiteke, ehundaka lagun irten ziren ihesean.

A: Jasotako testigantzak gogorak iruditu al zaizkizu?

L: Kontatu bitartean lekukoaren begietara begiratzera besterik ez zegoen oso krudelak izan zirela jakiteko. Gaur egun, ordea, zeharo intsensibilizatuta gaude, eta ez dago alderatzerik. Dena den, hamazazpi lagun afusitu zituzten, espetxeratuak ugari izan ziren, eta herriarrek gorriak ikusi behar izan zituzten.

“Ez ditut zauriak berriro ireki nahi izan: izen konprometagarririk ez dut aipatu”

A: Liburuan aipatzen al da izen-abizenik?

L: Ez, ez dut errepresioan erantzukin zuzena izan zutenen aipamenik egin. Liburuaren filosofia ez da salaketa izan, ezkutatuta zegoen

historia, baina era berean geurea eta ukacizina den historia kontatu nahi izatea baizik. Ez du zauriak irekitzea merezi. Horrek ordea, ez du esan nahi jendeak gauzak ahaztu egin di-



Xabier Lasa Bergara liburuaren egilea

tuenik.

A: Urte haiek bizi izan zituzten artean ze jarrera aurkitu duzu?

L: Bi jarrera ezberdin daude “gal-tzaileen” artean: batzuek ahaztu egin nahi izan dute, bizimodu berri bati ekin eta hondamena atzean utzi. Nere ustez zaila da jarrera hau ulertzea. Eta gainera, oker handia dela iruditzen zait, beraiek ez baitiete belar-naldi berriei historia hura transmititu. Eta egun, ni baino zaharragoek ere ez dakite gerra hari buruz ezer txo ere. Andoinen ezer gertatu zenik ere ez zaie iruditzen. Beste batzuek, isilean baino tinko jarraitu zuten euren ideiekin eta egoerak ho-

bera egin zuenean euren ideiak kaleralatu zituzten.

“Oker handia izan da historia ez transmititu izana”

A: Gerra hark ba al dauka zerikusirik egungo egoerarekin?

X: Zuzen-zuzenean dago erlazionatuta, are gehiago, gaur hartako zenbait argudio eta aldarrikapen erabiltzen jarraitzen dira eta bizirik diraute. Egungo zenbait jarrera gertatzen haiei begiratu uler daitezke. Eta jendearengan orokorrean, are gehiago alderdi politikoetan mugitzen direnengan, eta erantzukizunen bat dutenengan hutsune hori somatzen dut. Bizirik dagoen historia da, egun haiek bizi izan zituztenak bizirik daude oraindik, eta euren testigantza jaso beharra dago. Herri batek bere historia ezagutzen ez duenean oker berberak egiteko arriskuan dagoela esatea topikoa da, baina nik uste, jendeari eta politikoei, horrek, gutxienez, zerbait

pentzarazi beharko liekeela.

A: Zerk piztu du zuregan lanean ari zinela interesik handiena?

L: Errepublikako hosi urte horien aberastasuna, aukeraz betetako aldaketa eta erreforma garaia izan zelako. Baina zeharo txunditu nauena beste zerbait izan da: behin faxistek herria bereganatu zutenean jendear-teko gorrotoak, mendekuak, ezinikusiak nagusitu ziren, herrian konfidantzako inor ez zegoela ematen zuen. Auzi zaharrak ateratu zituen jendeak eta elkarren arteko salaketak eguneroko gauza arrunta bilakatu ziren. Sinestezina.

Asteasu

Orain hogei urte bezainbeste artzain

Santu Guztien Egunean jaitsi eta maiatzan igo

Badira ia bi hilabete, Santu Guztien Egunetik alegia, Saskarate baserriko Lorenzo Urkolak Zelatungo zelaietara bere ardiekin egunero igotzeari utzi zionetik. Maiatza bitarteko tartea hartu du, artzain guztiek egiten duten bezala, etxeratzeke, ez ordea, atsedean hartzeko, "gustora geratuko nintzen ni Zelatunen hemengo lanak egiteko beste inor egongo balitz" dio Lorenzok baserrian egin behar izaten diren hamaika lan gogoratuz. Orain hogeita hamar urte egin zen artzain eta gaur egun ELE elkarteko, Euskal Latxa ardi Elkarteko, bazkide asteasuar bakarra da. Orain arte berak eta Juanita Larrartek bere emazteak beti saldu izan dute gazta etxean. Etorkizunerako badauzkate asmo berriak, hala ere, behin baserria konpondu eta gaztategi berria egin ondoren "Idiazabalgo gazta" deituraz izendatuko dituzte euren gaztak.

Lorenzok dioenez orain hogei urte zegoen artzain kopuru bera dago gaur egun Asteasu eta Aia inguruan. Artzain kopuru berdintsua, baina ardi gehiagorekin. Hala ere, eta artzain bizimodua lehen-goia izaten jarraitzen duen arren, Lorenzok berak zenbait ohitura aldatu ditu. Gaur egun Zelatunen artzain bakarra dago sasoi osoa bertan ematen duena; Lorenzo goizean goiz igo eta egunero jaisten da bazkalorduan. Jaitsitakoan ardiak bateriaz kargatutako hesian gordetzen ditu eta baserriko beste zeregin batzuetan aritzen da. Bizimodu gogorra dela dio, baina ez zaigu iruditzen beste ezergatik aldatuko lukeenik, bestelako bizimodurik ere probatu eta utzi egin baitu.

"Etxean saldu dugu beti gazta; behin hasi, parrokia egin eta..."

Orain arte eta urteetan etxean saldu dute gazta, egunean hogeiren bat gazta egin eta saltzen dituzte: "Behin gustatu, parrokia egin eta urteetan jarraitu dugu" dio Juanitak. Honez gain Juanita esnea saltzera jaisten da Asteasu eta Billabonako zenbait etxe eta tabernetara. Aspaldi utzi zioten azoketan ibiltzeari: "Askotan gertatzen da azokara joan, etaazienda guztiarekin etxera itzuli behar izatea, erdi hondatuta gainera" dio Juanitak, "hobe da etxean merkexeago saldu, baina dena saldu, behintzat". Ikusten da beraz, oraindik ere, nahiz eta gero eta gutxia-



Dagoeneko 30 urte artzain

go izan, etxeetan baserriko esnea dendakoa baino nahiago dutenak badirela. Tabernetako enkarguak ere jaso ohi dituzte telefonoz asteburuetan natilak egiteko esnea eskatuz.

Artilea

Garai batean artilea nahiko ongi saltzen omen zuten artzainek, orain berriz, "oparituta ere ez omen du inork nahi izaten" dio Lorenzok. Ongi ordainduta inoiz egon ez den arren, orain lau urte hogeita hamar durotan saltzen omen zuten artilea, aurten berriz zortzi durotan baino ez. Ardi bakoitzak gutxi gorabehera bi kilo ile ematen omen ditu. Lehen koltxoia egiteko ere erabiltzen zen, eta hariá egiteko lantegi batzuk erabiltzen zuten, gaur

egun koltxoiak eginda erosten dira, eta hari lantegiei ez dirudi errentagarria zaienik artilea erabiltzea, hari puska txukun bat ateratzeko artile kantitate handia behar baita.

Eguberrietarako arkume guztiak salduta

Eguberrietarako hitzartuta omen dauzka ia Lorenzok arkume denak, egun hauek San Jose egunak berak baino aproposagoak baitira. Izaten dira ardiari urtean umaldi bat baino gehiago izatera behartzen duten baserritarak. Bi urtetan hiru umaldi baino ez omen dituela ardiak egin behar argitu digu asteasuarrak, "ardia bestela gehiago nekatzen da, arkumeak indarririk ez dauka, eta hazten ere lan doblea ematen dute" dio Lorenzok.

Idiazabalgo gazta

Saskarate goitik behera konpontzen ari direla aurkitu ditugu Lorenzo eta etxeokak. Izan ere, etorkizunerako asmo berriak dauzkate: etxea eraberritu, eta egungo legeak agintzen duen bezala, azienda etxetik atera, beste gaztategi bat egin, eta "Idiazabalgo gazta" deitura erabiliz gazta gehiago edota etxetik kanpo saltzen hasi. Era horretan lan eginda gazta gehiago saltzeko aukera izango ote duten galdetu diegu. Uste horretan daudela erantzun digute, baina "auskalo!" dio senar-emazteak aho batez. Idiazabalgo gaztaren inguruan egun hauetan dagoen eztabaidaren berri eman diogu Lorenzori, alegia batzuk gaztak osorik latxa ardiz egin ordez, beste esne mota bat nahastearen aldeko agertzen ari baitira. Nahikoa latxa esne izanda ez zaiola logikoa iruditzen adierazi digu Lorenzok, eta bestalde "aldea esnean baino egiteko eran dago" gaineratu du.

Besteak beste, ELE elkartearen dagoen Asteasuko artzain bakarra dela jakin dugu. Ardien kontrola egitea da elkartearen lan garrantzitsuenetako bat, aldian behin ho-



Lorenzo eta Roki

retarako izaten dute albaitariaren edo "kontroladorearen" bisita. Elkartearen egotearen ordainez, ardientzat derrigorrezkoak diren zenbait medikamenduetarako dirulaguntzak lortu ohi dituzte. Gipuzkoan hogeita hamar artzain inguruk osatzen dute elkartearen. Partaide izateko gutxienez ehun ardi izan behar ditu artzainak. ■

Joxe Mari ITURRALDE

ZURGINDEGIA

Formika lanak, sarrerako eta barruko ate mota guztiak eta edozein zurgintza lan.

ADUNA - ☎ 69 20 81



LAN ELEKTRO-MEKANIKOAK

Pablo Gorosabel, 48

☎ 65 54 76 **TOLOSA**

Sorabilla Auzoa, 53 Poligonoa

☎ 59 24 11 **ANDOAIN**

ASESORIA
GESTORIA
ASEGURUAK

ALDAMA - TAPIA

KALITATEA ETA SEGURTASUNA !!

KALE BERRIA 22

TELEFONOA 59 44 76 - 30 01 67 **20140 ANDOAIN**



AUTOEN MEKANIKA OROKORRA ZABALAGA TAILERRAK


Ama Kandida Etorbidea. DENAC Poligonoa, 203. Pabeloia
Telefonia 30 01 69 **ANDOAIN**

Andoian

BAP taldeak bere hirugarren diskoa plazaratu du

“Lehertzeko garaia”; aurrekoak baino disko gogorragoa

Gaztetxearen hamargarren urtebetetzearen ospakizuna aprobetxatu dute andoaindarrek disko berriaren aurkezpena egiteko. Hamabi kantuk osatzen dute diskoa, “errealitatea bezain bitxiak, garratzak eta krudelak, errealitatea bezala, itxaropentsuak, errealitatea bezala” Xabier Cervantes musika adituaren hitzei jarraituz. Ingelesez kantutako doinu bat ere tartekatu dute: “Going down” Tom Waits musikariaren hitzetan inspiratuz. Hala nola, BAPek musikari horren hitzak bildu eta gehitu dizkio diskoari. Musikari dagokionez aurreko diskoaren ildoari jarraitu diote, baina doinuak gogorragoak direla adierazi dute. Esan Ozenki disketeak kaleratu du diskoa.



“Doinuak gogorragoak, Mikel Abregoren bateria inoiz baino erabatekoagoa, Xabier Olazabal ‘Drakeren’ baxua inoiz baino landuagoa, Jon Oiartzun ‘Jonesen’ gitarra, inoiz baino zorrotzagoa eta hitzak inoiz baino sentimendu handiagoz kantatu ditu Enekok” horiexek izan ziren Fermin Muguruza Negu Gorriak taldeko abeslaria eta Esan Ozenki disketeako ordezkariaren hitzak diskoa aurkeztean. Hirugarren disko hau estatuaz kanpo zabaltzeko, hala nola, kontzertuak egiteko asmoa aurreratu zuen Fermin Muguruzak.

“Inoiz baino erabatekoago, zorrotzago, landuago eta sentimendu handiagoz kantatua”

Hirugarren disko honetan ez dira kolaborazioak falta izan: aipatzekoak dira Angel Valdesen perkutsio lanak, Kakiren gitarra eta koroa, Digi. Pezen *scratchbak* eta *samplerrak*. Xabier Montoia da, bestalde “Lehertzeko garaia” hitzen itzultzailea. Argazkiak Josean Goya eta Beñat Arregirenak dira eta portada Susana Ricorena. Aipagarria da, halaber, Mario Bene-



Zuzeneko aurkezpena gaztetxean

© IKOR KOTX

GARBI

Drogeria
Lurrindenda

Kale Nagusia, 18 - ANDOAIN

Orumendi
Kirolak

AUKERA ZABALA
KIROL-ARTIKULUETAN



JUAN BAUTISTA ERRO, 2 - TELF. 59 18 06 ANDOAIN

detti idazlearen ipuin batean oinarritutako kanta.

Hamaikagarren urtebetetzea

Hamaikagarren urtea bete du dagoeneko BAP taldeak, *hardcore* estiloan Euskal Herrian nahiz estatu osoan talde aitzindaria. Eta adituen esanetan estilo honen bilakaerarik koherenteena garatu duena.

“Hardcore estiloaren bilakaera koherentea”

“... Bide huts, etxe huts” (1988) lehenengo diskoan egindako ahalegin sortzaileak eta “Zuri beltzez” (1992) zoragarriak, azkenik, aurkitu dute jarraibidea” dio Xabier Cervantesek hirugarren disko honi buruz, “konposaketa gogor, latz eta lasaien bitartez behar denean, heldutasuna goibeltasuna, konfusioa, akatsei eta kontraesanari aurre egiteko sentsibilitatea espresatzen dira”.

Askok, gure mugez kanpo batez ere, ezagutzen dute BAP bere lehenengo diskoak izan zuen oihartzunagatik. Ezin ahaztu Katalunian eta Bartzelonan batez ere, orain urte batzuk egin zitzaizen harrera ona. “Noizbehinka jotzen ditugu oraindik kantu haiek” dio Eneko Abregok, “baina garaiak aldatu dira, eta baita gu ere...”. Dena den batek baino gehiagok uste du denborak arrazoi eman diola talde andoaindarrari: “Denborak onespena eman dio, ahanzturan bateru gabe. Denboraren kontra borrokatzea ez da ona” dio beste behin Xabier Cervantesek, “BAPek ez dio sekula borrokari uko egin, baina inoiz ez du denbora zirikatatu. Eta denborak sententzia eman du. Bere intentzioz beteriko poesia garrantzak lau edo bost lagunengana onespena baino gehiago izan du”. Hala bedi!



Diskoaren aurkezpena gaztetxean

Andoain

Kultur taldeak haserre

Oraindik ez dituzte kultur taldeei dagozkien dirulaguntzak onartu

“Zergatik ibili behar dugu beti kultur taldeak eskaleen modura?” horixe da kultur taldeen kexa. Hori dela eta Intui abesbatza, Kitto Gazte Kolektiboa, Munilla atsedean taldea, Andoaingo Antimilitarista Taldea, Andoaingo ekologistak, Askagintza, Hementxe aldizkaria, Triana dantza taldea eta Akelarre taldeek sinatu dute momentuz, herriari egoeraren berri eman nahian argitaratu duten oharra.

Beraiei dagokienez, azkenengo bi urteetan gertatu den kultur ekintzen beherapenaren azalpena eman nahi dute: “1993. urtean kultur taldeek urtarril edo otsailean aurkeztu zituzten beraien programaketak aurrekontu eta guzti, aurrekontuak uztaila arte eztabaidatu ez zirenez, gure programaketa, helburu eta asmoak hiru hilabetetara mugatu zizkiguten”. Aurten urte hasieran programaketa eta aurrekontu berriak aurkeztu zituzten taldeek, “eta gaur egun oraindik ez dira 1994ko dirulaguntzak onartu”.

“Egoera hau lotsagarria iruditzen zaigu eta gehiago bi urteren buruan kultur taldeei zegokien diru kopurua nola gutxitu den kontuan hartzen badugu” diote.

Eskariak

Azkenik, honako puntu hauetan zehaztutako eskaria egin nahi diote Udalari: urte hasierarako talde guztiak jakin dezatela aurkeztutako programaketen arabera dagozkien dirulaguntzak; dirulaguntzak emateko erabiltzen dituzten irizpideak argitzea; dirulaguntzak erabaki eta Gobernu Batzordean eztabaidatu aurretik Kultur Kontseiluan gaiak hitz egitea eta talde bakoitzaren iritzia entzutea; Udal ordezkarien jarrera aldatzea orain arte interes eta zorrotasun gabea izan baita; aurretik onartu bezala Kultur Kontseiluko aktak jasotzea; eta azkenik, abenduan Kultur Kontseiluko bilera egitea gai hauek eztabaidatzeko.



LIBURUDENDA

**LIBURU AUKERA
EDERRA PRESTATU
DUGU ZURETZAT**

Agustin de Leitza 27 ANDOAIN ☎ 59 16 03



TXERRIKIEN
BANATZAILE
ETA EKOIZLEA

ENPRESEN ZENTRUA
Ama Kandida z/g - 307. Moduloa - ☎ 592923
ANDOAIN

Billabona

Aizkardi mendi elkarteak, hogeitun urte gailurretan

“Mendira joateko erraztasunak ematea dugu helburu”

Mendizaletasuna ez dago hilik, ez horixe. Hori erakutsi digute behintzat Aizkardikoek, duela hogeitun urtez geroztik baitabiltza mendian gora eta behera. Inguruko mendiak ezagutzeko aukeraz gain urrutixeago joateko aukera ere badauka Billabonako mendi elkartera hurreratzen den edonork. Loatzo kultur elkartetik sortu zen Aizkardi 1974. urtean. Kirola, mendia eta kultura garatzen zituzten Loatzo, nahiz eta azken urteetan mendi irteerak soilik antolatzen zituzten. Loatzo mendiko federazioetik kanpo geratu zen, eta ondorioz, bi urteren buruan Aizkardi sortu zen federazioan jarraitu ahal izateko.

Ez da erraza mendi elkarte federatu bat sortzea: “Ehun bazkide behar genituen horretarako eta bazkide bila aritu ginen herrian jendea pelmada emanez” diote Aizkardiko ki-deek. Zortzi lagun hasi ziren elkarte berri honen sortze lanetan, oraindik orain hasi zirenetako baten bat gelditzen delarik.

20 urteko ibilbide luzea

Mendi ugari zapaldu dituzte urte hauetan guztietan zehar elkarte-koek zein antolatutako irteeretara joan direnek. Baina urte guztiak ez dira berdinak izan. Hasierako urteetan alboko herrietako mendi elkarte ezberdinekin antolatzen zituzten hainbat ibilaldi: “Tolosako Oargi, Apino edota Andoaingo Euskalduna elkarteekin bat antolatzen genituen zenbait bidaiak, autobusa bete ahal izateko” gogoratu digute.



Pirineotako Vignamalen duela 15 urte (3.300m)

“Autobusa
bete jende
biltzea ez da
erraza”

Beraz, nahiz eta inguruko mendietara joateko arazorik ez izan, Pirineotara edota beste mendikate edo ingurune alden du batera joateko autobuskada jende biltzea ez zen erraza.

Gaur egun 30-40 inguruko lagun taldea biltzen omen da Aizkardik antolatutako ibilaldietan. “Autobúsa betetzeko adina!” diote.

“Jendea bestelako ingurune eta urrun dauden mendiak ezagutzeko aukera eman nahi diegu, beti ere, errezagoa da gure inguruko mendietara joatea” erantzun dute bidaiak

luze horien zergatiak galdetzean. Argi daukate ordea, hemengo mendiak ezagutu behar direla eta herrietara joatea bultzatu behar dela. Beraz, udan joaten dira urrutiko mendietara eta neguan aldiz, aldirietan ibiltzeko garaia izaten dute.

Udan urrutira
eta neguan
inguruko
mendietara

Duela pare bat urteko egoera ez zen batere ona, diotenez “jende gutxi etortzen zen antolatutako irteeraldietara, eta hau orokorrean elkarte guztiak nabaritu zuten. Jendea bere kabuz mugitzen hasi zen, beren kotxean, erosotasun handiagoaz”.



Vignamaten orain dela gutxi

Bi urtetik hona egoera hobetu egin da jendea, eta batez ere gazteak elkarreak antolatutako ibilaldietan parte hartzen ari baitira. Aizkardik, mendira joateko erraztasunak eskaintzen dio elkartera jozten duen edonori: bidaia, mendiko materiala eta behar den beste zenbait gauza.

Berrehun bazkide eta ehun eta hogeita hemezortzi federatu ditu gaur egun Aizkardik. Jadanik egin da daukate hurrengo urteko egutegia; hilabetero irteera bat edo bi

egitea daukate pentsatuta. Urteroko ekintza finkoak ere badauzkate: martxoan egiten duten martxa edota Zizurkilgo Sortzaile kultur elkarrekin bat antolatzen duten "Mendi astea". Bertan, egin berria den espedizio bati buruzko hitzaldia, elkartekideren baten ibilaldi berezi bati buruzko hitzaldia eta diapositiba emanaldia eta antzeko zenbait ekintza antolatzen dituzte.

Gazteak ordezk

"Gazte jendea inplikatu behar dugu, beraiek hartu behar dute

elkartearen ardura" diote Aizkardiko zuzendaritzakoek. Badakite gazte jendea saltsa askotan dabilela normalean, baina hauek bultzatu behar omen dute mendizaletasuna. Mendira joateko zaletasuna piskanaka sortzen omen da, inguruko mendi txiketara joanez: "Batzuk Pirineotara joaten dira, oraindik inguruko mendi koskorrenak ere ezagutzen ez dituztela" diote. "Asko dira bestalde, modari jarraitzen diotenak, ikustea besterik ez dago zenbat jende joaten den eskiatzera".

"Inguruko mendi koskorak ezagutu gabe, Pirineotara"

Aizkardikoek argi daukate mendia zaletasun hutsa dela beraientzat, ongi pasa, langunartean ibili eta ingurune berriak ezagutzeko aitzaki polita da beren ustez. Beraz, badakizu nora jo behar duzun dibertsio bila, botak jantzi besterik ez duzu egin behar.

Ainhua Oiartzabal

URPA, S.M. AUTOBUSAK



Sorabilla Auzoa, 53. Pol.

☎ (943) 59 38 05


Fax (943) 30 01 06

Autobusak. (908) 17 18 92

Mobilak (908) 77 20 43

**KALITATEA
ETA
SEGURTASUNA
ZURE
ZERBITZURA!!**

**ANDOAIN
GIPUZKOA**



**ZUBI
AUTO ESKOLA**

Ernio bidea, 2 - ☎ 69 06 93 - ZIZURKIL

**FRANCISCO MENDIKUTE
HARATEGIA**



Kale Txiki, 15 - ☎ 59 02 58 - ANDOAIN

Andoain

Mendoza txurreria, 1958tik hutsik egin gabe

N-I errepidea herri erditik igarotzen zenean bidaiari asko gelditzen ziren txurroak erostera

Betidanik ikusi dugu hor. Trenbideko zubiaren ondoan urtez urte, kieto, neguko igande hotzetan sekulako usain gozoa dariola. Santos txurroak frijitzen eta Juanita haiei azukrea gehitu eta saltzen, 36 urteetan aritu dira jo eta su lanean.

Eguneroko lanak emandako jorنالaskotarako iristen ez eta Donostiako "Arturo" txurreroarekin hasi zen lanean Santos igandeetan. Festaz festa ibiltzen zen txurroz be-

ezkonberritan zegeon Santos eta Juanita egoten den lekuaren parean, sapatik seaska eusten zuen iltzea.

Artean N-I errepidea Andoain erdi-erditik igarotzen zen, eta makina bat kotxek egiten zuten geldialdia beheko plazan bidaiari berriz ekin aurretik Mendozaneako txurroak jateko. Orain *Kilometroak* jaieren ondorengo igandetik Santa Kruzetararte irekitzen dute txurreria: orduan, ordea, uztailearte ere arit-

bizkarrean hartu eta kalez kale joan beharra izaten zuen. Semea koskor-tu zitzairenean haren kotxetxoa paratu zuen txurroak eramateko. Oraindik Joxe herrera-arenean omen dago gordeta kotxe hura.

Beheko eta Goiko plazan

Beheko txurreria utzi gabe, Goiko plazan ere hasi ziren txurroak saltzen. Udalak txurreria ostiraletan jarri eta astelehenerako kendu egin behar zutela agindu zioen, eta hala egin zuten tarte handi batean. Baina lan handia zen hura, eta utzi egin zioten herrian zehar saltzaile aritze-ari. Beheko txurrerian aritu dira harez geroztik, kasik bigarren etxea bihurtuta duten hartan. "Jose Luis Elizondokoak badaki zenbat iltze sartu ditugun hemen", esan digute Mendozatarrek txurreria botako duenik ez dela azpimarratu ondoren. Izan dira uholdeak, elurteak eta euriteak, baina Mendoza txurreriak bere horretan jarraitzen du.

Eta jarraituko du. Seguru, Santos aita erretiratuta dago jada, baina haren ofizioa ondo baino hobeto ikasi du Virgilio semeak, eta ama eta biek irekitzen dute txurreria igandeetan. Baina Juanitak seguruenera hauxe izango du azken urtea, hanka batean duen minak ez baitio lana behar bezala egiten uzten. Hala eta guztiz ere haren ordezkoa egiteko laguna ere topatu dute jada.

Duela 58 urte Santosi Madriletik ekarri zioten txurro makinak jarraituko ahal du beste hainbestean!

Jone Larrañaga



Ez da urteetan mugitu, ezta mugituko ere

tetako kapazoa bizkarrean hartuta. Eta haren lan egiteko modua gustatu nonbait, eta berarekin txurroak egiten hasi nahi ote zuen galdeginezion jabeak. Orduantxe ikasi zuen Santosek txurro gozoen sekretua non dagoen.

Handik gutxira jabeak Andoainen zuen txurreria hartzeko modua egokitu zitzaion. 1958 urtea zen,

zen ziren txurroak saltzen. Afrikara eta Espainiako kostara zihoazen atzerritarrak erruz gerturatzen baitziren hara. Ondo gogoan du Santosek nola goizeko lauetan jaiki behar izaten zuten maiz: txurroak egiteko gaiak prestatu, haiek egin eta Juanita geratzen zen jendeak eskatzen zion nahi beste txurro dozena saltzen. Santosek, berriz, kapazoa

Billabona

TAUNI, txapa manipulatzeko makineria

“Enpresa txikiek presio handiak dauzkagu lan egitean”

TAUNI Billabonako sarreran dagoen lantegi txiki bat da. Inguruko hamar langilek egiten dute bertan lan eta makina-erraminta da euren lan esparrua. Duela hogeita hamar urte sortu zen “Talleres Unidos” izenpean. Orduko bazkiderik ez da dagoeneko enpresan gelditzen, izan ere orain hogeita hamar urte aurreko ekoizpena bertan behera utzi eta txapa manipulatzeko makineria egiteari ekin zioten. Horixe da hain zuzen ere gaur egun egiten dutena: txapa lautzeko makinak, txapa luze edota zehar mozteko makinak, desbiribiltzeko makinak, alegia txapa manipulatzeko hainbat eta hainbat makina, baita paperfabriketarako tresneria ere.

Txapa hauen norakoa kotxe lantegiak, potoak ekoizten dituzten enpresak..., alegia, txapa lehengaitzat erabiltzen duten era guztietako lantegiak izaten dira.

Imanol Usandizaga zizurkildararak, lantegiko gerenteak, azaldu digu Espainiko mugaz kanpo saltzen dituztela gehienbat makinak, euskal merkatuak bizi duen beherakadaren ondorioz gure artean ez baita makina asko saltzen.


TAUNIk osatu behar dituen makinaren planoak bulego tekniko batek jaso, eta oso-osorik muntatzen ditu. Bera ez da salmentaz arduratzen, aipaturiko bulego teknikoaren lana da hori. Orain arte ez dute aparteko arazorik izan euren makinak merkaturatzeko. Arrasate taldearekin ere harreman zuzena daukate, eta Fagorren izenpean ateratzen dituzte kanpora makina asko. Orain arte lanik ez falta arren, krisi garai hauetan lana baino, dirua omen da faltan izaten dena. Bestalde, TAUNI bezalako enpresa

txikiek presio handia jasan behar izaten omen dute agindutako epeetan lanak betetzeko, “nolabaiteko txantaila existitzen dela esan daiteke, izan ere, lana guk bete ezin badugu enpresek agudo jotzen dute beste batengana. Honek askotan langileen ordutegiak direla eta ez direla, arazoak eragiten ditu. Presioa, benetan, oso handia da”, dio Imanolek.

Teknologiaren aurrerapena

Makinak muntatzeaz eurak arduratzen baldin badira ere, elektronika eta hidraulika lanak lantegiz kanpoko beste aditu batzuek egiten dituzte, “izan ere burdin arloan azken urte hauetan izan dira aldaketak, baina elektronikan egun batetik bestera ari dira gauzak aldatzen eta puntako teknikoak behar izaten dira”. Kontrol numerikoak ere jartzekotan egon ziren orain gutxi, baina egiten dituzten makinaren pieza asko errepikatzen badira ere, beste asko ezberdinak dira, ez dute normalean sailka lan egiten, eta zalantzak daukate zenbaterainoko izan daitekeen errentagarria horrelako inbertsioa egitea.

Azkenik egungo Euskal Herriko enpresa eta enpresarietarako buruz galde-tu diogu Imanoli. Bere ustez enpresariak ez dauka hemen inbertitzeko motibaziorik; “alde batetik segurtasun faltak uxatzen ditu, eta bestetik, nonahi azaltzen ari diren ‘lapurrak’”.



Tona handiko makineria egiten dute



Zabala
Ordukari Bitxitegia

Kale Nagusia, 14 - ☎ 59 37 45 - ANDOAIN
Gúdari enparantza - ☎ 33 23 41 - HERNANI

Ageltzaritza

M. USABIAGA

Leku eder Etxea - Elbarrena Auzoa
☎ 69 35 60 - 69 34 35
20150 ZIZURKIL (GIPUZKOA)

DURANGO

Ama Birjinaren egunean, arratsaldean, Durangoko Azokan ez zegoen pausorik ematerik, gainezka zegoen jendez. Horixe izan zen iritsi eta lehen-lehenik hartu nuen inpresioa, alferrik joan nintzela bertara, alegia. Gerediaga Elkar-tekoek aukera hauek bati heldu beharko liokete behingoz: salgu-neak erruz murriztu ala bisitariak uxatzen hasi eta, horrela, azoka bilgunearen kapazitatara ekarri -eta horrek ezinezkoa dirudi oraintxe-, edota liburu azokarentzat gune handiagoa aurkitu ala azoka bera toki ezberdinetan banandu. Azken bi aukerak ere ez dira halanolakako erronkak, baina arrisku handia da azoka aurtengo *nabi baina ezin* horretan narriatzen uztea.

Euskal liburugintzaren bilgune eta eragingune nagusi da Durango, zalan-tzarik gabe. Milaka bisitari egiten du topo bertan eta argitaletxeek, oro har, muzinik gabe aitortu ohi dute asko saltzen dela bertako zitan. Horri begira dihardute, hain zuzen ere, urtcaren puska handi batean. Liburugintzari dago-kionez, eta euskarazko erdal liburuen euskarazko euskal liburuen -gero eta nahasiago dauzkagu kontzeptu horiek- osasuna azokan neurtzeko tentazioa ez da berria, sortu zenez geroztik izan ohi da. Horretan, geuzurrezko irudirik azal diezaioke azokak bisitariari. Zer nolako da osasun hori?

Ez dago kontu berririk. Euskaraz argitara ematen diren liburuetarik asko eta asko -hala euskal literaturakoak nola itzulpenezkoak- Eusko Jaurlaritzaren laguntzei esker ikusten dute argia, eta, zenbaitetan, oraindik ere liburugintzan musutruk lanean aritzen diren gutxi batzuen eskutik. Ez dut nik hori gaitzesten, ezta gutxiagorik ere, baina euskarazko liburugintzari ez diote eusten azokan ibili diren milaka lagun horiek bakarrik, ez gero hurrenetik! Hor ere badirudi erabat aldentuta daudela gero eta oparo eta onduago gertutzen zaigun euskal ekoizpen literarioa eta irakurle kopurua; hori guztia oro har eta genero-banaketan sartu gabe. Genero bakoitzari dagozkion arazoan artean ere denetarik dago: eusko literaturak berezko dituenak eta literaturgintza unibertsalari dagozkionak. Baina hor Durangok ez du apar-

teko zeri-kusirik.

Beste artikuluren batean ere irakurria dut Durangoko azoka basamortu bertako osasua dela euskal idazleentzat, egun gutxi batzuz urte osorako arnasberriez asetzeko aukera. Baliteke... Nire irudiz Durango ere izan liteke idazle euskaldun zenbaitentzat -askorentzat akasobasamortu erdiko aluzinazioa, esker-roneko irudikeria irakurleen itxaron-minez urte osoan lanean dihardutenentzat.

Aurtengo liburu eta diska azokan ekin-tza osagarri berriak antolatzeari bultzada nabarmena eman zaio -poesia errezitaldia, kontzertuak...-, eta kopuruari begira ez dira hainbeste izan hor ibilitako bisitariak. Alabaina, ekinbide horri heldu behar diote gogoz antolatzaileek!

Durangoko Azoka garrantzi handiko topagune sozial bihurtu da euskaldunontzat, euskararen aldeko beste ekinbide batzuen parera iristeraino. Holakoetan, sarri, parte hartze hutsak izaten du azkenean benetako protagonismoa, Durangoko kasuan euskal liburu edo diska bigarren maila baterako utziz: eguarte edo arratsalde osorako plana, alegia. Horrek neurri batean esplikatzen du ere milakako partaidetza hori. Baina azoka beti horixe da: azoka, eta oso azoka bateko jokalbidea da begiratuarekin ikusmiran ibiltzea atzera eta aurrera, azkenean esku hutsik ateratzeko. Santo Tomaseko ferrian ere holaxe ibili ohi dira milaka lagun han erakusten diren barazki eta jangaien aurrean: behar eta gose gutxi. Durangon ere beste horrenbeste. Kontsumismo itsua izan ohi da beste jokabideetarik bat: hortan ere behar eta gose txikia, alajaina!

Beharrak gogo onez hartuko luke urtero bigarren txanda bat udaberriko azken aldera. Hala deritzot nik, behinik behin. Horrekin guztiarekin ere, bego!, arren, urtero azoka Durangon.

Jon Unanue López.



Argitalpenak

DURANGOKO AZOKAN PLAZARATUTAKO ARGITALPEN BATZUK:

Literatura:

“**Gelak eta zelaiak**”. Amaia Iturbi-deren poema liburua. *Erein*.

“**Emon biar yako**”. Inigo Aranbarri. *Susa*.

“**Manual devotio gabecoa...**”. Tere Irastorzaren poema liburua. *Pamiela*.

“**Hautsaren kronika**”. Inazio Mujika Iraola. *Alberdania*.

“**Sagarraren hausterrea**”. Jon Iriberriren poema liburua. *Erein*.

“**Nerea eta biok**”. Laura Mintegi. *Txalaparta*.

Haur literatura:

“**Sholak badu lehoien berri**”. Bernardo Atxaga. *Erein*.

“**Lur zabaletan**”. Aingeru Epaltza. *Pamiela*.

“**Metak eta kometak**”. Joan Mari Iri-goien. *Elkar*.

“**Ipuinkaria**”. Patxi Zubizarreta. *Pamiela*.

“**Lau bizikleta urrutira joateko**”. Joxemari Iturralde. *Erein*.

“**Gauetz zoo batean**”. Juan Kruz Ige-rabide. *Alberdania*.

Itzulpenak:

Robert Louis Stevenson-en “**Ballan-traeko Premua**”. *Igela*. Xabier Olarra.

Ismael Kadare-ren “**Hiru arkuko zibia**”. *Elkar*. Juan Mari Arzallus.

Wystan Hugh Auden-en “**Poemak**”. *Susa*. Juanjo Olasagarre.

Günter Grass-en “**Katua eta saga**”. *Ibaizabal*. Xabier Mendiguren Berziartua.

Diskoak:

“**Laberintoan galduta**”. EH Sukarra. *Esan Ozenki Records*.

“**Nola esan dek?**”. Lin Ton Taun. *Esan Ozenki Records*.

“**Hunkidura kuttunak II**”. Benito Lertxundi. *Elkar*.

“**Atlantic River**”. J. C. Pérez. *Elkar*.

“**Mendebaldeko euskal baladak**”. Hiru Truku. *Emak Bakia Baita*.

Makurtu

Ez gaituzte pistolek makurraraziko: goraskadiskatuta! Jarri esaldia edozein ahotan; berdin liteke Atutxaren emaztearena edo KASeko Alegriarena. Hemen ez da inor makurtzen. Hobe zutik hil makurtuta bizi baino. Jo ta ke, markurtu gabe. Tente bada, zutik, tinko, Gernikako Arbola bezala, hemen gaude: Hitlerrek, zipaioek edo jarraitxuek tiro eginda ere, txirikaua guztiak kieto, ez dadila inor makurtu gero. Eseri ere ez da hemen inor inon eseritzen; ez dezatela pentsa makurtzeko lehen urratsa denik hori. Belauna bi zentimetro flexionatzea ere belau-niko jartzearen sinonimoa da hemen, harrizko herri honetan. Burugorrorak gara, zinez, Txomin del Regatoren topikoak konplitzera behartuta gaude, nonbait, eta ez gara makurtzen, txapela eror ez dakigun. Irabazi ala hil; hemen ez du inork sekula santan galtzen, galtzea debekatuta dago, eta irabazi beste aukerarik ez dago.

Baina hara, makurtzeko garaia ere iritsiko da. Burua makurtu, begirada lurrera zuzendu eta hainbeste derrota, miseria eta saminen inguruan gogoeta egin beharko da. Hemen guztiak irabazi nahi dute, eta beti irabazi gainera. Hori ez da posible; baina guztiak galtzea, eta beti galtzea, hori posible da, ikusten ari gara eta. Gatazka Euskadi, versus Estatua ote? Ala "euskaldunen" (goraskadi dioten horien) artekoa? Gatazka etsaminetara joateko gogo putarik ez duen funtzionarioaren leihatilan dago; gatazka kioskoetan dago, ez titulu zaratatsuen durruban, tonaka deskargatzen den prentsa erdaldunaren eta egunkari mehe honen arteko oreka ia ezinezko horretan baizik.

Luis Fernández
Euskaldunon Egunkaria.
Abenduak 2.

TXUS CONGIL, ASKAGINTZA ELKARTEKO ORDEZKARIA:

"IZUGARRIZKO ITXURAKERIA DAGO, DROGA LEGALAK ONARTZEN DITUGU ETA OSO LASAI GAUDE"

- Legeztatzea ez da promozioaren sinonimo?

- Legeztatzea, liberalizazioa eta azkenik promozioa izango ote den beldurra dago. Droga guztiak piskanaka arautu behar dira, eta haxixarekin hasi behar dugu. Egia da toxikomanoen %99k aurretik porro-ak erre dituztela, baina haxix erretzaileen artean ez dago heroina hartu izan duenik, eta heroinazaleen %100ek bere garaian biberoia hartzen zuten. Izugarritzko itxurakeria dago, droga legalak onartzen ditugu eta oso lasai gaude, eta izugarritzko arazo eta ondorioak sortzen dituzte.

Argia.
Azaroak 27.

"Maria Luisa emakume beldurgarria da"

Kontxu Odriozola

- Zein da Maria Luisa eta Kontxuren artean dagoen alderik nabarmenena?

- Nik ez dakit. Nik hain pertsona beldurgarria ikusten dut Maria Luisa hau, gorrotagarria, ezta? Baina ez al da gaiztoegia?, esaten dut askotan nire artean.

- Pertsonaia, zure barrutik atera zaizu, ala kopiatu egin duzu?

- Kopiatu, ez. Nik zuzendariari bakarrik jarraitu diot. Testuak dakarrena interpretatzea aktorearen eta zuzendariaren lana da, eta hor dosifikatzen jakin behar da.

- Hain bizi egiten duzu, ze! Maria Luisa asko al dago Euskal Herrian?

Esaten didate, lagun artean eta, emakume asko dagoela hemen nirekin identifikatzen direnak, atal batzuetan behintzat. Nolabait etxe bateko lema eramaten dakiak.

Euskaldunon Egunkaria.
Abenduak 4.

LAGUNAK

KARROZERIA

SORABILLA AUZOA - 53. POLIGONOA - ☎ 59 44 48 - ANDOAIN

EGA S.A. ZERBITZU OFIZIALA
FURGOI ISOTERMIKOAK
HOZKAILUAK
TXAPA ETA PINTURA

Joxe Ramon

Taberna

PINTXO EDERRAK !!

KALE NAGUSIA, 16 - ANDOAIN

Hots,hots!

JAIOTZAK



ANDOAIN

- Tania Pascual Hernández. Azaroak 17.
- Xabier Barbado Delgado. Azarotoak 19.
- Mikel Pozas Bermejo. Abenduak 7.

ZIZURKIL

- Unai Urkola Lavado. Azaroak 19.

EZKONTZAK



ANDOAIN

- Roger Francisco Alfaro eta Natividad Martinez. Azaroak 21.
- Gabriel Mendizabal eta Antonia Carrera. Azaroak 26.
- Jose Luis Ferro eta Maria Luisa Jauregi. Abenduak 3.
- Jose Antonio Arretxe eta Maria Elena Sanz. Abenduak 10.

BILLABONA

- Ildefonso Martin eta Maria Eusebia Ayerza. Azaroak 26.

ZIZURKIL

- Francisco Javier Bravo eta Maria Teresa Larrarte. Azaroak 29.

ANDOAIN

- † Concepcion Zalakain Gaztañaga. Azaroak 23.
- † Emilio Calvo Garrido. Abenduak 3.
- † Felipe Alonso Gómez. Abenduak 10.

ASTEASU


- † Joakin Arretxe Etxeberria. Abenduak 9.

BILLABONA

- † Dorotea Arregi Zalakain. Azaroak 25.
- † Juana Alkain Mendizabal. Abenduak 2.
- † Mercedes Berakoetxea Aizpun. Abenduak 4.
- † M^{re} Jesus Borrego Irastorza. Abenduak 4.

ZIZURKIL

- † J.Manuel Ugartemendia Iraola. Azaroak 18.
- † Gregoria Amenabar Carrera. Azaroak 24.
- † Clara Alberdi Ibarbia. Azaroak 24.
- † Evarista Corona Gutierrez. Abenduak 1.
- † Juana Goenaga Zubeldia. Abenduak 3.



HILETA OHARRAK

*Gure akdizkariaren bitartez
eskeroneko obarririk argitara eman
nabi izanez gero,hemen dituzue
aukeran bi tamainako obarrak*

HANDIA: (40mm x 120mm) – 10.000ptz

TXIKIA: (40mm x 56mm) – 5.000ptz



SUKALDE TXOKOAN



Delfi Díez
Leizaran jatetxea
Andoain

Itsaski krema Leizaran erara

Osagaiak:

- Tipula
- Porruak
- Piper berdeak
- Baratxuriak
- Azenarioak
- Gambak, otarrainskak, zigalak
- edo beste edozein itsaski
- Oliba olioa
- Koinaka

1- Barazki guztiak zatikatu eta lapiko batean sutan ipini oliba olioaz. Oliba ilun samar jarri arte lapikoa mugitu. Itsaskinak jarri orduan eta barazkiekin batera beste piska batean su bigunez berotu.

2- Sutan ongi bigundu ondoren baso txiki bat koinak hota. Suak hartuko orduan. Bakarrik itzali arte utzi. Arrain salda hota gainean barazkiak eta itsaskinak estali arte. Eta su txikian irekiten utzi beste ordu erdiz.

3- Irekin ondoren, irabiagailuaz zehatu eta pasapuren pasatu fin-fin oso krema fina egin dadin. Katiluan zerbitzatzen da ganba isats zuritu txiki bat hondoan daukala.

Ikasketak

ANDOAIN:

Enpresa zientzietan lizentziatuak klase partikularrak emango lituzke etxean: matematika OHO, LH, BBB eta UBI maila. Baita kontabilitate klaseak ere. ☎ 59 14 54.

OHO, UBI eta IEEko klase partikularrak. Euskara-gaztelania itzulpenak. Edozein eratako lanak pasatzen dira ordenadorez. ☎ 59 23 45. Elisabet.

Ingelesen diplomatuak klase partikularrak emango lituzke astean bi aldiz. 5.000 pezeta hileko. ☎ 42 88 55. Gauean deitu. Plazaola 9. behea.

Ingeniari teknikoa fisika eta matematika klaseak emateko prest dago BBB, LH eta UBI mailan. ☎ 59 01 09

Frantses filologoak klase partikularrak emango lituzke hasberrientzat, hobetze mailan eta elkarrizketarako. ☎ 59 22 06. Begoña

Biologian lizentziatuak kimika eta matematika klaseak emango lituzke. BBB eta IEE. ☎ 59 23 87

Goizez etxeko lanak egin eta ume bat zainduko nuke. ☎ 81 05 71. 12.30 - 13.30 eta 19.00etatik aurrera deitu

Filologia duen irakaslea behar dut. ☎ 59 35 25. Txomin. Deitu: 13.00 - 14.30.

Salerosketak

BILLABONA:

Cyclostatik BH MI-TECHa salgai. Vibrowcycle, abdominal bibradoreduna da txirringa. Egoera onean dago, eta prezioa are hobeagoa da. ☎ 69 30 48. Juan Luis.

Lana

ANDOAIN:

Zure apunteak/lanak ordenadorez pasa ditzaket. ☎ 59 41 76. Alicia

BETERRI: Ezer saldu edo eskaini nahi izango bazenu, ez zalantzarik izan, hauxe duzu zure txokoa. Eman iezaguzu informazio zehatz eta osoa, hartara, interesatua jakinarene gainean izango da. Bestalde, ez ahaztu! Inorekin harremanetan jarri nahi baduzu, hau duzu biderik egokiena.



TXURI BELTZ
Taberna
KALE BERRIA, 9 ANDOAIN TELF. 59 35 49

HONTZA BIDEO TALDEA
BIDEO ERREPORTAIK



EZKONTZAK
JAUNARTZEAK
BATAIOAK
OMENALDIK
JAIK
ETA ABAR
☎ 59 33 05
ANDOAIN



EUROPEAN SCHOOL
INGELES - FRANTSESA
ALEMANIERA - EUSKERA
ORDUTEGIA
GOIZEZ 9-1 . ARRATSALDEZ 4.30 - 9.30
LARUNBATEAN 9-1
Berria, 10 behea - Tel. 69 39 76 BILLABONA

Iturri-Ondo
JATETXEA



☎ 69 13 31
ASTEASU

VAC VAC **HOL - ATZ** 

VACSOL - WR TRATAMENDUA EGURRARENTZAT

OHOL ETA ALTZARIEN TRATAMENDUA
PITZADURA, PIPI eta HEZETASUNAREN
AURKAKO TRATAMENDU FIDAGARRIA
Agaitz auzoa, z/g.
☎ 69 30 63 - 69 07 34
BILLABONA



IKAS-JOLAS

Jostailu, bideo eta liburuetan aukera paregabea

Pio Baroja, 3 - ☎ 59 13 61 - ANDOAIN



JOSEBA
Altzariak
KALETXIKI, 6 ANDOAIN
FAX ETA TELF. 59 07 61

ANDOAINEN BI UDAL-BATZARRE DIRELA-ETA...

**Zure
hizpidea**



Azkenaldi honetan politika ofizialetik eta hainbat komunikabideetatik pertsona eta jarrera batzuk izendatzeko hizkuntza berri bat ezarri zaigu. Eta ondorioz, hori dardute euskal gizartea bi hizkuntzen arabera zatitzen: demokratik-ezdematikat, pakezaleak-endarzaleak, tolerantetik-ez tolerantetik... Balore baikorrak eta ezkorrak, batzuen eta besteen eksklusibitatean jartzen dituzte. Eta okerrena zera da, diskurtso hori aditu eta irakurtzearen poderioz kasik-kasik inkonstzienteki ere normalizat jotzera heldu gara.

Bestalde, zenbaitek, irizpide horiek zorrotz erabili ohi dituzte, Euskaltzaindiak euskara batuarekiko eman ohi dituen arauak balira baino zorrotzago. Hiztegi eta hizkuntza ofizial hori jarraipide egin duenetako adibide bat, dirudinez, Gipuzkoako best-seller den egunkariak Andoainen duen kronista dugu.

Hainbat istilu bortitzek zenbait gau eta egun Andoaingo bazterrak nahastu dituztela-eta, horiek aztertzeko asmotan bi Udal-Batzarre egin dira. Bietan izana naiz, eta gorago aipagai dudan kronistak egin dituen kronikatxoak ere irakurri berriak ditut. Hain justu ere, gertakizun horiek guztiek mintzagai -edo aitzakitza- harturik, eskubiderik izango ahal dut hizkuntza ofizial hori pittin bat zalantzan jartzeko!

Ezer baino lehen, bi Batzarretan esandakoaz makina dira egin litezkeen kontsiderazioak, hala nola: 2. bilkuran gehiengoz Udalak andoaindar askoekiko burutu zuen agrario konparatiboa, bortizkeria ezberdinen jatorriaz...; halaber, edonori gomenda diezioke joan dadin ia astero egiten diren bilkuretara, euretatik zenbait mito hautsi eta sorpresatxo franko aterako lituzke-eta. Bakar-bakarrik, hala ere, niretzat esanahi asko duten bi pasadizoetan erraparatuko dut, biak ere salagarriak izaki. Baten batek esan dezake itxasoan bi ur-tantta bezain ziztrin baino ez zirela izan; baina ez beza pentsa!, maiz giza-kondukta txikiak ere ezin egokiagoak gertatu ohi baitira gauza handiak deskribatzeko garaian.

Lehenbiziko Batzarrean -goardiazibilen ekiera zela medio egin zena-, noizbait, EUEko bozeramaileak, jendearen tartetik sortu ziren ahots ozen eta purrustaden poderioz, bere interbentzioa eten egin zuen. Delako kronistak ondo zioen bezala, bozeramaileak zentsuratzaileei hurkoarekiko errespetoa izaten ikas zezaten eskatu zien. Gainera, alkatesak isiltzeko jenio zakarrean agindu ondoren, bozeramaileak zera gaineratu zuen, alegia, guztia herri honetako zati baten tolerantzi ezaren eredu zela.

2. Batzarrean -herriko ertzain baten autoak jasan zuen eraso aztertu zuenean-, H.B.ko bozeramailea hizketan ari zela, halako batean beste hainbesteko desaireak eta far ironikoak egin zitzaizkion. Azken horien egileei, ordea, alkatesak ez zien isiltzekorik agindu, eta inork ez zituen intolerantetzat jo; aipatu kronistak ere bere informazioan horretaz ezer ez aipatzearen *lapsus txikia*-n egin zuen.

Bukatzeke, lehenbiziko zentsura egileen eta bigarrengo ezaugarriak azaleratuko ditut; hitzak ez dira nireak izango, hizkuntza ofizial horretatik atereak baizik. Alegia, lehenbiziko zentsuratzaile taldean gehienak 20-22 urtetako gazte buruarinak ziren; euskal gizartean klase marginala osatzen duten langabetu, ikasleak... ziren; elkarbitza baketsu batean bizitzea gogoko ez duten xarpaixuak ziren...

Bigarrengoan, gehien bat jende heldua zen, heziketa dotorekoa, sozialki errespetoz ikusita dagoena, profesio kualifikatua duena... Talde horren barruan asko eta asko funtzionario bereziak ziren; alegia, zerako pertsonak: herritarrak gozoki tratatzen, entzuten, kale-arazoak konpontzen..., eta gure gizartean errespetoa ezartzera inbuituak behar luketenak; eta gainera, ofizialki aldarrika ohi digutenez behintzat, emozioak kontrolatzera bereziki prestatuta egon behar luketenak...

Xabier Lasa Bergara

**A d u n a
Altzariak**

Altzarien erakusketa,
fabrikazioa eta salmenta



**CIRCULO
MOBILIARIO**

Elbarrena auzoa, 7/g
☎ 69 15 62 - 66 - Faxa 69 34 66
ADUNA

KIROLETARAKO BEHAR DEN GUZTIA

**KIROLAK
EDURNE**

KALETXIKI, 6 - ☎ 59 19 58

ANDOAIN

Euskal Okela Labelari buruz hainbat hausnarketa

Makina bat denbora pasa da dagoneko, EHNEk gure haragia bereizteko asmoz marka generikoa delakoaren sorreraren asmoa edota planteamenduaren aldeko apostua egin zuenetik. Makina bat haragi ere jan da hartaz geroztik. Jakina, makinatxo bat haragi susmagarri ere sartu izan da gure herrietako hainbat harategietan. Saldu? Baita saldu ere.

Europar haragi produkzioari dagokionez gehiegikeria dagoen bitartean, hemen kontsumitzen dugun haragiaren herena ere ez da bertan ekoiztutakoa.

Asko berba egin da kanpoko okela susmagarriei buruz eta ez alferrik gainera, denok baitakigu zein usategi mota diren jaun eta jabe produktibismo hutsaren eremuan: ustiategi industrial edota tamaina handikoak, lurrarekin loturarik ez dutenak eta zeresanik ez ingurugiroarekin.

Bestalde, EHNE sindikatuak, bere izaeraren ardatza nagusia harturik, kalitatearen aldeko apostua argi eta garbi azaldu izan du beti. Jakin badakigu bertako haragia, ohizko era naturalean ekoiztutakoa den heinean ez zela zertan bereiztu beharko, era anormalean ekoiztutako okela identifikatu beharko zelarik. Baina kontuak kontu eta egiak egi, geurea defenditu nahi badugu bereiztasunaren filosofia da egun azaltzen zaigun irtenbi-deetariko bat.

1992. urtean Eusko Jaurlaritzak argitara emandako Euskal Baserialdeko Plangintzan kalitatean oinarritutako bereizketaren aldeko jarrera azaldu zuenetik, hainbat label aurkeztu izan dira: patata, bildotsa..., eta nola ez, Euskal Komunitate Autonomoko haragiaren labela: Euskal Okela Labela. Honen araudiaren zirriborroaren hausnarketa sakona egin eta gero, EHNEk hainbat iradokizun azaltzera eman zuen. Horri esker hasierako labelaren planteamendu teknikoa zerbait aldatzea lortu izan zen, ahalik eta baserritar gehienek parte har zezaten, hasierakoa nahiko elitista baitzen, hots, zorioneko esku bätzuen ahalmenetik gertu bakarrik.

Dena dela, hor geratu zen Administrazioaren jarrera zabala, noizbait izan badu, behintzat. Ez dira ez, ahalegin gutxi egin Administrazioak bere atek zabal ditzan denon gustoko eta denon onerako proiektua egiteko:

nola gestionatu, nork, zein aurrekontu..., galdera asko. Alferrikako lana, Eusko Jaurlaritzak sindikatuarekiko harremanetarako ez baitago gertu.

Hauteskunde garaia zela eta, hor non arrapaldan handik hona eta hemendik hara non ibili diren ipurterre labelaren lehen aurkezpen publikoak antolatuz. Jokoa benetan maltzurra, are eta gehiago kontuan hartuz gero, oraindik baserritar gehienek labelari buruzko informaziorik jaso ez duten bitartean, suposatzen dugu labelaren gainbegirale lanetan diharduko duen Lan Batzordea osatzen hasiak direla. Benetan kezkarria.

Bestalde, etxe bereko anaiengana joz, hor dugu Nafarroan garatzen ari diren "Nafarroako Txekorra" label proiektua: askoz ere eredugarriagoa, bertan hainbat arlotako ordezkariak eta baserritarrek partehartze zuzena, aktiboa eta erabakiorra izanik denon onerako proiektua jorratzen ari direla.

Komunitate autonomo honetan, ordea, eztabaida gutxiok proiektua ezadostua eta guztiz eratzeko dagoena, arrapaladan saldu nahi izan da.

EHNEren ustez, baserritarri hobekuntzak ekartzen dizkion heinean, labela bertako kalitatezko haragiaren produkzioa ziurtatzeko tresna baliogarria izan daiteke. Egungo labelaren araudi teknikoari dagokionez, baserritar ororentzat nahikoa zabal geratzen da, baina bestalde, Euskal Okela labela baserritarra garatzeko helburuaz, EHNE sindikatuak baserritar oro bertan parte hartzeko animatzen du, azken finean barruan egotea baita modu bakarra hasierako proiektu ezadostu horri buelta emanez, baserritarrek euren lekua ziur dezaten. Beti da gustokoago "behi euskaldun bätzuen memoriak" irakurri baino "behi euskaldunen memoriak" idaztea.

Jon Zuazabeitia
EHNEko koordinatzailea

MIRARI
ILEAPAINDEGIA

ELIZONDO PLAZA, 2
☎ 590162 ANDOAIN

LIBURUDENDA
ERNAITZA
PAPERDENDA

jai hauetarako opari eta
libururik egokienak aurkituko
dituzu.

EGUBERRI ON!

ZUMEA KALEA, 2 ☎ 59 24 59 ANDOAIN

Labela
okindegia

**ETXEKOENTZAT
APARTEKO
OGIA!!**

Kale Nagusia, 19 - ☎ 69 17 11 - BILLABONA

Txiste lehiaketa

Abendua bitartean AIURRIk antolatu duen txiste lehiaketan parte hartu nahi baduzu, era honetako txisteak, edo graziosoagoak bidali behar dizkiguzu:

Eroetxeko zuzendariak proba bat egin nahi izan zuen eroen gaisotasuna zein neurritakoa zen jakiteko. Piszina hustu zuen eta esan zien eroci:

- *Salta denak, eta igerian egin.*

Batek ez beste denek salto egin zuten. Eta zuzendariak pentsatu zuen bere artean: "Hauxe egongo da hemen zoroena". Eta galdetu zion eroari:

- *Aizu, zuk zergatik ez dituzu saltorik egin:*

Eta eroak erantzun:

- *Oraindik digestorik egin ez dudalako.*

...

- *Aita, izugarri berritzen nau gauza batek.*

- *Zerk berritzen nau ba, borrenbeste?*

- *Zuk bizarra beltza eta ilea zuria edukitzeak.*

- *Horrek esplikazio erreza zeutkak, seme! Ez al dakik ba, bizarrak baino hobei urte gehiago dituela ileak?*

Manoli Iturralde. Andoain.

Felix joan da eguerdian bazkaltzera, eta eseri da mahaiari. Andrea nahiko xuhurra zen eta entsalada prestatu eta mahai gainean jartzen omen dio. Baina oso olio gutxi eta ozpinik gabe, gatz berriz neurtuta. Eta hasten da Felix jaten eta horrela esaten omen dio:

- *Felipa! Nolako entsalda da hau?*

- *Zer ba? Txarra al dago?*

- *Horrela jartzekotan, baratzan bertan jango dut.*

...

Felix eta Joxek topo egiten dute kalean eta horrela esaten omen dio Felixek bere lagunari:

- *Atzo emaztea zeharo baserretu zitzaidan txoro kontu batzuenengatik eta erabat historika joan zitzaidan.*

- *Hi, Felix, hori nola duk, historika? Ez zen ba, isterika joango?*

- *Ez, ez, historika joan zitzaidan, zeren eta ezkondu ginen egunetik gertatu diren basereldi guztiak gogorazki zizkidan.*

Joxean Azkue. Asteasu.

Sorpresa, sorpresa!

Bi lagunek topo egiten dute kale nagusian.

- *Kaixo aspaldiko! Nora ua presaka?*

- *Seme zabarrenak medikuntza ikasketak bukatu dizkik eta berari oparitzeko boligrafo bat erostera niak, sorpresa handi bat eman nahi diot eta!*

- *Baina... sorpresa emango diokela pentsatzen al duk?*

- *Ziur batietz! Berak kotxe bat espero dik eta!*

Limosnatxo bat

Eskale bat eliz atarian eskean. Besteren artean banketxeko zuzendari inguratzen da.

- *Limosnatxo bat Jainkoaren izenean! Zuzendariak ezta begiratu ere.*

- *Elizatik irtetzerakoan berriro eskaleak.*

- *Limosnatxo bat Santu Guztien izenean!*

Eta zuzendariak:

- *Tira, abalitez babestuta beste gauza bat da.*

Eta hobei duro ematen dizkio.

Arantza Sorondo. Amasa

Benetan xuhurra

Gizon bat hain zen xuhurra, hain zen xuhurra, ezen hilzorian bere ohean zegoela, zera galdetu zuen:

- *Emazte, bemen al zaude...?*

- *Bai, senar, nola ez naitz ba egongo!*

- *Seme, zu ere bemen al zaude...?*

- *Bai aita, ni ere bemen nago.*

- *Alaba, zu ere bemen, nire ondoan al zaude?*

- *Noski batietz.*

Eta halako batean aitak haserre oihu egiten du:

- *Orduan, zein demontreentzat daukazue sukaldeko argia piztuta?!*

Amalia Lizaso. Andoain

Obarra:

Asko izan dira hilabete honetan jasotako txisteak, horregatik, toki falta dela eta, ezinezkoa izan zaigu guztiak argitaratzea.



Hilero AIURRIko erredakziobatzordeak hautatutako txisterik bixi, xelebre eta txispagarrienak kaleratuko ditugu. Txisteak hilarren 20a baino lehen helarazi behar dizkiguzue zuen izen-abizenak eta telefonoa adieraziz.

Gure irakurleak dibertitzeaz gain, bi sañi eder jasotzeko aukera izango dute irabazleak:

1- Andoaingo AITZBELTZ elektrotresna dendak eskeinitako "Compact diksman" paregabe bat.

2- Asteasuko "PATXINE" jatetxean bi lagunentzako afari bat.

GABONAK

ANDOAIN

Urriak 5: Erregeen kabalgata arratsaldeko 6etan irtengo da Goiburutik eta herria zeharkatuko du.

ASTEASU

Abenduak 24: Gabon Gaua dela eta herritar guztiei egiten zaie deia kantuan atera daitezten. Joseba Elizegiri laguntzeko izango da aurten biltzen den dirua.

Abenduak 27: Bilboko Gabonetako haur parkera bisita. Izenematea Kultur Etxean.

Urriak 5: Erregeen kabalgata.

ZIZURKIL

Abenduak 24: Haurrak goizean irtengo dira kantari. eguerdian Olenzerok, beti egin duen bezala, gozokiak banatuko ditu.

KOSTATA gazte asanblada eta Amnistiaren aldeko Batzordea ere kantuan aterako dira.

ANTZERKIA

BILLABONA

Abenduak 30: Peter Roberts-ek "Tak-tik" saioa aurkeztuko du Gurea antzerki aretoan.

Urtarrilak 5: Gorakada taldeak "Nahikoa" antzezlan eskainiko du.

ANDOAIN

Urtarrilak 14: Bederen Bat antzerki taldeak "Errenta" izeneko saioa eskainiko du La Salleko aretoan

ZINEMA

BILLABONA

Gurea zinema aretoan aurki izango dira ikusgai:

Stephan Ellioten "**Priscila**"
Sylvester Stalone eta Sharon Stone aktoreak protagonista diren "**El especialista**".

Emilio Martínez Lazároren "**Los peores años de nuestra vida**" filme espainiarra.

"**Stargate. Puerta a las estrellas**"

IKASTAROAK

BILLABONA

Urtarriletik aurrera ikastaro hauek eskainiko ditu Kultur Etxeak: bideoaren erabilpena, argazkilaritza, zeramika, margogintza eta marrazkigintza, antzerkia etra arte plastikoak.

ZIZURKIL

Judo ikastaroari urtarrilaren 9an emango zaio hasiera. Astelehen eta asteazkenetan izango dira saioak eta bost urtetik aurrerakoei dago zuzenduta.

Ikas teknikak ikastaro berriari urtarrilaren 15ean ekingo zaio. Izenemateak Kultur Etxean.

BEASAIN

Aisialdiko begirale-ikastaroa. Informazio gehiago nahi izanez gero interesatuek Beasaingo Udaleko eus-kara teknikariengana jo dezakete.

ERAKUSKETAK

Abenduak 19-23: ilustrazio erakusketak liburutegiko haurren gelan. Publiko zabalarentzat arratsaldeko 16.00-19.00 egongo da irekita.

Abenduak 21-25: Jaiotzen erakusketak Kultur Etxean. Santo Tomas egunean egingo da sari banaketa

AMNISTIAREN ALDEKO

BATZARRAREN

OHARRA

BILLABONA

Abenduak 23: Gutun eguna. Egun horretan mahaiak jarriko dira puntu desberdinetan

Abenduak 24: Amnistiaren aldeko Olentzeroa aterako da (entsaioak 20ean 8etan Kultur Etxean).

Abenduak 30: Senideak elkarteak antolatutako enkartelada, Zizurkilgo Joxe Arregi enparantzan, 8etan.

Abenduak 31: Valladolidera martxa irtengo da, autobuserako izen-ematea IRATZAR eta ILARGI tabernetan. Itzuleran mobilizazioa eta gaueko 1etan Amnistiaren aldeko brindisa eta bertan presoan testigantza espero da.

BESTE

ASTEASU

Gabonetako oporretan haurrentzako ludoteka arratsaldez Kultur Etxean.

ZIZURKIL

Abenduak 21: Santo Tomas eguna dela eta, txistorra jana. Horretaz gain txerrikumearen zozketa egingo da eta Pedro Maria Otaño ikastetxeko ikasleek liburuen azoka antolatuko dute.

Abenduaren 26-30: Haurrentzako filmak.

OHARRA

ANDOAIN

La Salle Lan Hezikerako ikasle ohiei eskaria:

1996ko martxoan LaSalle-Berrozpeko Lan Heziketaren 50. urteurrena dela eta, beste ekintza batzuen artean, argazki erakusketak bat antolatuko dute argazkiak biltzeko. Antolatzaileek adierazi digutenez argazkiak hilabetera eta kopia bat egin ondoren itzuliko dituzte. Argazkiari honako zehaztapen hauek adierazten dituen oharra gehitu behar zaio: izen-abizenak, helbidea eta telefonoa, argazki bakoitzaren urtea, eguna, gaia, agertzen diren izenak. Urtarrilaren amaiera baino lehen jaso nahi dituzte argazkiak antolatzaileek La Salle-Berrozpe ikastetxeko idazkaritzan.

BENITO

HARATEGIA

URDAITEGIA

KALE NAGUSIA, 22 ☎ 69 11 49

ARROA KALEA, 4 ☎ 69 13 50

BILLABONA



Gemma

Loradenda

LORATEGIEN MANTENUA
KANPO NAHIZ
BARRUKO LANDAREAK

Kale Nagusia, 5 - ☎ 69 28 98 - BILLABONA

Orain dela 70 urteko Andoaingo Eguberriak

Gabon gaua izaten zen urteko gaurik zoragarriena; urruti egon arren, gurasoengana bilduko ziren seme-alaba guztiak beraien gurasoentzako oparitxoekin, eta une pozgarria izaten zen aita-amarentzat.


Sukaldeko mahai inguruan bilduko ziren afari gozo bat jateko: aza-olioak, makailoa saltsan eta bixigua gozo-gozo amak maitasun guztiz prestatuta, sagardo onenak eta ardo naparra ere bai, gero su inguruan erretako sagarrak eta danbolinan gaztainak, akeita eta pattarra, eta "Kaxo motel!", hura izaten zen umorea eta herriketa gogoia. "Ikusiko dek aitaren parrez eta amaren poz atseginez...."

Zergatik ez zen gau hartan ardiki, txerriki edo haragirik jaten? Bijili eguna zelako eta debekatuta zeukan Elizak egun horietan haragia jatea. Eguberri eguncan goizeko bostetan hasten ziren mezak eta azkenengoa hamarretan izaten zen, herri gizonek musika banda aurretik zutela. Ondoren kontzertua arkupeetan eta arratsaldean nahikoa musika plazan eta jende asko dantzan. Iluntzean antzerkia Berdura plazan. Baita ere esan behar det egun horietan apaiz bakoitzak hiru meza emateko eskubidea zuela saritzat.

Seminario edo apaizgai etxe dotore bat bazen Andoainen, orain La Salle dagoen tokian. Bada, 1925. urtean Influxente eguncan sute handi batek erre eta hondatu zuen dena. Hemen 40 apaizgai inguru izaten ziren 11-15 urte bitartekoak, eta herria asko bizitzen eta jazten zuten.

Joxe Eizmendi

B E R T S O T A N



Berriro ere gabonak eta urtearen bukaera beste bost eta helduko gera bi milagarren urtera. Pakea ere nabiko genuke eguberriaz batera denok espero degun urtea hauxe izango ote da.

Urte honetan iritsi zaigu ia azkeneko bila hori medio aldeztu aurretik denari zorion mila. Eguberrietan saia gaitezen denak pakearen bila eta patrika flakutzen bada tripa loditu dadila.

Aitor Mendiluze
Andoain



3	4	5	6	7	8	9	8	9	10	11	12	13	14	5	6	7	8	9	10	11
10	11	12	13	14	15	16	15	16	17	18	19	20	21	12	13	14	15	16	17	18
17	18	19	20	21	22	23	22	23	24	25	26	27	28	19	20	21	22	23	24	25
24	25	26	27	28	29	30	29	30	31					26	27	28	29	30		

UZTAILA

3	4	5	6	7	8	9	1	2		
10	11	12	13	14	15	16	7	8	9	
17	18	19	20	21	22	23	14	15	16	17
24	25	26	27	28	29	30	21	22	23	24
							28	29	30	31

ABUZTUA

1	2	3	4	5	6	
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

IRAILA

1	2	3				
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	

URRIA

2	3	4	5	6	7	8	1										
9	10	11	12	13	14	15	6	7	8								
16	17	18	19	20	21	22	13	14	15	16	17						
23	24	25	26	27	28	29	20	21	22	23	24	25	26				
							27	28	29	30	25	26	27	28	29	30	31


AZAROA

1	2	3	4	5		
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30			

ABENDUA

1	2	3				
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

NAIARRA



JOSEBA ELIZEGI

EZIN DUGU BAKARRIK UTZI !!

OSATZEKO, GURE LAGUNTZA BEHAR DU

**HONAKO KONTU KORRONTEAK IREKI DIRA JOSEBA
ELIZEGIREN FAMILIARI LAGUNTZEKO**

KUTXA: 10384428

BBV: 0010286000

BANCO DE SANTANDER: 97330

CAJA LABORAL-EUSKADIKO KUTXA: 0460005069

BANCO HISPANO AMERICANO: 2210019644

BANCO GUIPUZCOANO: 0470015856



**ELEKTROTRESNAK
SUKALDERAKO ALTZARIAK**




MITZBELTZ

Arteta kalea, 1 eta 3
☎ 59 12 26 - faxa 30 03 45
ANDOAIN

**PATXINE
JATETXEAK**

Errementari kalea, 1
20159 ASTEASU
☎ 69 10 25



GURE BEREZITASUNA: EUSKAL SUKALDARITZA ETA ETXEKO POSTREAK